

426 zenbakia. 2000ko urriaren 20a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria


Berrigara



Dantza berrizten

"Aukeran", Edu Muruamendiarazen ikuskizuna

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tf: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea 3 (Eskatu edifizioa).
Tf: 943 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK



Nissan Primera berria



Ibilbideaz goza ezazu

Comfort



Luxury



Sport



Elegance



BLANCO

Amillaga 22 - Tel. / faxa: 943 76 17 35
20570 BERGARA

ALDIBI AUTOAK, S

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. 20500 ARRAS
aldibi@nortekar



Erabilpena=garaipena

Ibai Redondo / Ikaslea

Gehientsuenok behin baino gehiagotan entzun ahal izango zenuen euskara seguruenik Europako hizkuntza zaharrena dela. Hori hala bada, gure arbasoek hizkuntzarekiko lotura estua izan zutelako da.

Euskarak eta euskararen lurraldeak milaka urtetan zailtasun nabarmenak jasan dituzte. Hala, azpimarragarriak dira hainbat inperio indartsuren nahien gainetik (Greziakoa edo Erromakoa kasu) edo frankismo garaiko espainolaren inposaketatik gure hizkuntza eta kulturak bizi iraun dutela.

Gaur egun, nire aburuz, erronka oso handiak ditu euskarak. Batetik, munduko kulturen globalizazioa, eta, bestetik, Espainia eta Frantziako estatuetako hizkuntzen nagusitasuna.

Azken urte hauetan, egia da euskarak aurrera egin duela, lurraldearen zati batean behinik behin. Baina, gaur egungo egoera ez da onegia, ezta gutxiago ere. Lege geriza honek ez du etorkizuneko Euskal Herria euskalduna bermatzen. Euskarak hainbat arlotan ez du zirrikitu legalik edo borondaterik aurkitzen aurrera egiteko: justizia, irakaskuntza, lan mundua, komunikabideak, etab.

Politika munduan zer esanik ez. Oso beltzak ardi larrua soinean duela aspaldidanik hasia du euskararen aurkako gurtzada. Adibideak ugari bezain gogorak dira: AEK eta ikastolen aurkako desprestijio lana; euskarari benetako ofizialtasunik eman nahi ez izatea; Nafarroako "vascuencearen legea" oraindik ere gehiago murrizteko saioa; UEMA legez kanpo zuteko asmoa izatea, etab.

Politikari abertzaleak, bestalde, alderdikeriak ezin bazterturik dabilta (euskararen defentsarako instituzio nazional bakarra den Udalbiltza blokeatuz), eta ez dira gai euskararen aldeko jarrera sendo bati denek batera lehenbailehen ekiteko.

"Zapaldua den hizkuntza zabaldu eta prestijiatu behar dugu euskaltzaleok.

Erabilpena eta garaipena hertsiki lotuak daudelako, lehen hau hartu beharko genuke denok oinarrian"

Panorama ilun honi gaur egun arte argia eman diona herria izan da, eta ez dago duda izpirik ere hemendik aurrerako zamak herriak hartu beharko dituela bere gain. Gure eginbeharra da euskararen etorkizuna bermatzea. Nola egiten den hori? Oraindik orain, formula magikorik aurkitu ez denez, arte erabili diren tresnak erabili beharko dira. Horrela, nire uste apalean, zapaldua den hizkuntza zabaldu eta prestijiatu behar dugu euskaltzaleok. Erabilpena eta garaipena hertsiki lotuak daudelako, lehen hau hartu beharko genuke denok oinarrian.

Erabilpen hori egia bilakatzeko behar-beharrezkoa den orube edo lurraldea behar dugu, Euskal Herria, euskararen herria. Honekin batera, euskara txoko guztietara hedatu eta etorkizun hobe emango dion legedia bakar eta nazionala eskuratzea ezinbestekotzat jotzen dut.

Helburuak ahalik eta garbien marraztu ondoren, berriz azpimarratu behar dena zera da: giltza gurea dela, gure arbaso eta gurasoen konpromisoaren erreleboa hartzea dagokigula, gure eskubidea delako. Nola? Hizkuntza erabiliz eta beronen aldeko herri ekimenetan parte hartuz.

Euskarak ez al du merezi?<

barruan



M. Karmen Gallastegi
EHUko Ekonomia katedraduna

"Globalizazioak identitatea galtzea dakar, eta kultura homogeneizatzea"

8.



Aitor Aristegi
Basarritarra

"Gustora jarriko neuzke politikoren batzuk basarrixan lanian"

15.



Jon Lazkano
Mendizalea

"Irudi politik grabatu eta beste kulturen berri eman nahi dugu dokumentaletan"

20.

AGENDA ETA ZERBITZUAK



BEKAK

Kooperazioa. Eusko Jaurlaritza. Laguntzak lankide profesional zein bolondresentzat. Epea: urriak 30.
Italian eta Israelen ikasteko bekak. Atzerriko Gaietarako Ministerioa. 2001/02 ikasturtean eta 2001eko udan. Lizentziatuak nahiz karrerako azken urteko ikasleak. Epea: urriak 27.
Euskara eta katalanaren ikaskuntza. Eusko Ikaskuntza, Institut d'Estudis Catalans. 1989 eta 2000 artean lizentziatu edo graduatuak. Epea: abenduak 15.

IKASTARDAK

Kontadores eta Martutene. Donostiako Udala. Ikastaro ugari bi Gazteleketan: antzerkia, makillajea, gidoiak, ipuin kontaketa, argazkigintza, magia... Epea: urriaren 18a bitartean edo lekua egon arte.

JARDUERAK

Udazken kulturala. Bergarako Udala. Antzerki, kontzertu, dantza ikuskizun... Epea: jardueraren arabera.
Getxoko XVIII. Antzerki Jardunaldia. Getxoko kultura aretoa. Epea: urriak 11-22.
Emakumeak: izanak eta izateak. Arrasateko Udala (Sexologia Zerbitzua). Mahainguruak, komunikazioak, antzerkia. Azaroak 4.

SARIAK

Logotipo lehiaketa Debabarrena eta Debagoieneko euskaltzaileen elkartearen logotipoa. Epea: urriaren 18a.

LAN ESKAINTZAK

Delineatzailea. Zamudioko Udala. Delineatzaile titulua. Euskara. Zamudioko Udala. Epea: urriak 17.
Ingurugiro teknikaria. Deba Garaiko Mankomunitatea. Industria teknikari ingeniari eta Zientzia Kimikoetan teknikaria. Epea: urriak 26.
Arkitekto teknikoa. Bilbao kirolak. Arkitekto tekniko edo aparejadore titulua. Epea: urriak 20.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
 Telefonoa: 943 77 91 57
 E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
 Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00
 Larunbata: 09:30-13:30


OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko ginezueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Lepamotz eta lepaluze

Lepamotz eta lepaluze ere erabiltzen dira.



Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirrek emandako informazioa

San Juan auzoan

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Urriak 10, martitzena	20 °C	11 °C	29,6 l/m ²
Urriak 11, eguaztena	12 °C	12 °C	12,4 l/m ²
Urriak 12, eguena	16 °C	6 °C	14,5 l/m ²
Urriak 13, eguakitza	14 °C	7 °C	21,5 l/m ²
Urriak 14, zapatua	14 °C	10 °C	4,1 l/m ²
Urriak 15, domeka	12 °C	9 °C	49,5 l/m ²
Urriak 16, astelehena	17 °C	10 °C	0,3 l/m ²
Urriak 17, martitzena	22 °C	7 °C	—
Urriak 18, eguaztena	25 °C	8 °C	0,4 l/m ²

Farmaziak

Eguakitza 20:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Zapatua 21:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Domeka 22:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Astelehena 23:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Martitzena 24:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguaztena 25:

PUV. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguena 26:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Ogia

Domeka 22: Ogizun.

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
 Zapatuak: 19:00.

Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
 Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalگو

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

Labegaraieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Eguakitza: 19:00.

Monja

Zaharrak

Domekak: 18:00.

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

20:00.

Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

11:45.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domeka: 10:00.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 76 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Bergarako udaltzaingoa	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Mendaroko ospitalea	943 03 28 00
Zumarragako ospitalea	943 03 50 00
Arantzazuko osp. (Donostia)	943 00 70 00
Santiago ospit. (Gasteiz)	945 00 76 00
Txagorritxu osp. (Gasteiz)	945 00 70 00
Basurtoko ospitalea	94 400 60 00
Galdakaoko ospitalea	94 400 70 00
Gurutzetako ospitalea	94 600 60 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
Odol emaleak	943 76 16 24
Itxaropenaren telefonoa	943 45 80 05

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Bergarako udaletxea	943 77 91 00
Antzuolako udaletxea	943 76 62 46
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Kirolegia	943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

ABERIAK / ISTRIPUAK

Argindarra. Iberdrola	901 20 20 20
Grua. Ibai	608 67 68 21

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Idolaz	943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara	943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk.	943 76 62 71
Postetxea	943 76 26 85
Bedelkar	943 76 04 68
Akulu AEK	943 76 05 18
Udal euskaltegia	943 76 44 53
Bergarako notaritza	943 76 10 73

zorion agurrak



Idoia Aiausti
21ean 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Arkauz
22an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




Eneko Lizarralde
23an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Monika Alberdi
23an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Asier.



Jabier Elizburu
24an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Andres Alzelai
23an 75 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak, Oihana
eta Amaia.



Jon Zenitagoia
24an 27 urte.
Urte askotarako!
Asko maite
zaituen bat.



Leire Gantxegi
24an 2 urte.
Urte askotarako!
Lehengusu-
lehengusinak.



Miren Zalaña
26an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nuria Sainz
25ean 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta
Ainhoa.



Judith Sagasta
23an 3 urte.
Urte askotarako!
Yasmina, Shere
eta Aitor.



Ainara Leizeaga
24an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

ESKER ONA

Maria Lopez Repiso

Eduardo Cuadradorearen alarguna

Bergaran hil zen
2000ko urriaren 7an,
86 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Luciano Altuna Osoro

Bergaran hil zen
1999ko urriaren 11n,
87 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

hildakoak

BERGARA
Luciano Altuna Osoro
Urriak 11, 87 urte
Nikanora Etxebarria Erostarbe
Urriak 16, 87 urte

ANTZUOLA
Teodora Lete Urkiola
Urriak 13, 90 urte
Inocencia Morcillo Escobar
Urriak 14, 85 urte

jaiotakoak

BERGARA
Miren Murgizu Agirrezabal
Irailak 13

urbanoa

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40,
12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20,
18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
Geralekuak: San Juan (Torunsa aurrean),
Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo
(Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San
Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean),
Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta
(Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatzen)
eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarretik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre,
Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi),
San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-
tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

Ion Eraña
20an 20 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Eneko Muguruza
26an 13 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia.

Jon Etxezarreta
26an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

*Hurrengo
alean,
urriaren 27tik
azaroaren 2ra
bitartekoen
zorion agurrak
argitaratuko
ditugu.*

autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40. Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaieg.: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunak: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaieg.: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaieg.: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

ANTZERKIA

► **Psicosis Gonzalesen**
"Con cierto desconcierto"
 kafe antzerkia gaur, eguakitza,
 22:30ean Elorrioko Ateneoan.

MUSIKA

► **Josetxo Goia-Aribere**
kontzertua bihar, zapatua,
 20:00etan Udaletxeko Pleno
 aretoan.

► **Udal Musika Bandaren**
kontzertua domekan,
 12:30ean, Udal Pilotalekuan.

► **Michael Monroe**
 domekan, hilak 22, 22:00etan
 Jam aretoan. Datorren eguaki-
 tzean, hilak 27, **Dictators**.

ERAKUSKETAK

► **Marrazki eta margo**
erakusketa bihar, zapatua,
 goizez, San Martin Plazan,
 Bedelkarrek antolatuta.

► **Luis Etxeberriaren** oleoak
 eta sorginak Nahikarin.

► **Juan Manuel Boteren**
 margoak Kultura Etxean.

LEHIAKETAK

► **Antzuolako Udaletxean**
fresko-mural bat pintatzeko
 lehiaketa. Obraren motiboak
 Antzuolako herriarekin lotuta
 egon beharko du. 500.000

KONTZERTUA


Jonathan Richman

- Bihar, zapatua, urriak 21, 22:00etan
- Jam aretoan
- Sarrera: 1.500 pezeta aurrez eta 2.500 takilan

Jonathan Richman gitarra jole betera-
 noaren (Boston, 1951) kontzertua izango
 da bihar, zapatua, Jam aretoan. Estatu ba-
 tuarrak "I'm so confused" bere azken lana
 aurkeztuko du Bergaran. Richmanek ibil-
 bide luzea egin du musika munduan,
 1972. urtean The Modern Lovers taldea
 sortu zuenetik. Ondoren, bakarkako ibil-
 bideari ekin zion. Bere jaioterrian sekula
 ez da egon musikari arrakastatsuenen ar-
 tean, baina 1970ko hamarkadan, Europan,
 "Egyptian reggae" abestiari esker zerren-
 dako lehen postuetara iritsi zen. Azken
 urteotan, batik bat zinean egindako kola-
 borazioei esker eman du bere burua eza-
 gutzera, izan ere, Farrelly anaien "Algo
 pasa con Mary" filme arrakastatsuan berak
 egiten zuen trobadorearen papera. Hala
 ere, kritikaren arabera, Richmani zuzene-
 ko emanaldiak gustatzen zaizkio gehien,
 eta urtero 130 bat kontzertu eman izan di-
 tu. Gaztelerez, italieraz eta frantsesez
 abesten ausartzen da behin baino gehia-
 gotan zuzenean, eta bere gustuko artisten
 artean, Van Morrison, Eric Burdon, Nana
 Mouskouri edo Sam Cooke-ren izenak ai-

patu izan ditu. Etorkizunean filmeetarako
 musika egitea gustatuko litzaiokeela esan
 du, eta Ertamerika eta Hegoameriketan
 abesteko gogoia aitortu du behin baino
 gehiagotan. Biharko kontzertuko telone-
 roa Niños Mutantes taldea izango da.

Bestalde, domekan, Michael Monroe
 Hanoi Rocks taldeko liderrak kontzertua
 emango du gaueko 9etatik aurrera. Sarre-
 rak 2.000 pezetan salduko dira Jameko ta-
 kilan (1.700 pezeta aurrez erosiz gero).
 Beraz, musikazaleek eskaintza bikaina
 izango dute astebukaera honetan.



Richman, Bostongo gitarra jole eta kantaria.

pezetako sari bakarra. Lanak
 entregatzeko epea abenduaren
 11n bukatuko da. 943 76 62 46.

IKASTAROAK

► **Grabatu hastapen ikas-**
taroa Beartek antolatuta.

Plaza mugatuak. Argibideak
 948 21 26 85 edo 659 87 45 17
 (Dani) zenbakietan.

► **Begirale ikastaroa** (maia-
 tzera bitarteko zapatuetan) eta
 keramika hastapen ikastaroa
 (urriaren 24tik urtarrilaren
 23ra) Arrasaten. Izen-ematea

eta argibideak 943 79 54 46
 telefonoan.

DEIAK


► **Bedelkarrek**, Eusko
 Jaurlaritzaren laguntzaz, anto-
 latutako hitzaldiak: urriaren

**A
R
R
A
N
O**



Taberna
 Kruz Gallastegi BERGARA

KONDE



**P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A**

Burdinate 1
 ☎ 943 76 02 57

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
 untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



GOXO-TOKI
 Iraila 3. Tf. 943 76 12 35
 Matxiategi 24. Tf. 943 76 23 37
 BERGARA

24an eta 25ean "Establezimenduaren dekorazioa eta giro-tzea" 14:15ean Kultura Etxean.

► **EAJk** bihar, zapatua, Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu du. Autobusa 15:30ean aterako da geltokitik. Izen-ematea Batzokiko tabernan.

► **San Joxepeko Kultur Hamabostaldia**ren barruan hitzaldia urriaren 24an, 19:30ean: "El progreso tecnologico, agente de la globalizacion". Hizlaria: Manuel Cendoya, Miramongo Parke Teknologikoaren zuzendaria. Eguenean, hilak 26, "La persona humana en una sociedad globalizada" izenburuko mahai-ingurua 19:30ean, Jose Maria Setien, Joseba Arregi, Mari Karmen Gallastegi eta Manuel Cendoyaren partaidetzarekin. Hilaren 27an, Orfeo Gaztea, San Joxepeko abesbatza eta Izaro eta Saioa bikotea 19:00etan Novedadesen.

► **Anelkar** Antzuolako Elkartasun Taldearen Hirugarren Munduarekiko elkartasun festa urriaren 28an. Egingo diren beste zenbait ekintzaren artean merienda-txoa izango da 18:00etan. Anelkarrek herritarren partaidetza eskatu nahi du, kafea edo txokolatea egin eta termoan eramanez edo tarta bat eginez. Kolaboratzeko, eman izena Itzar liburudendan.

► **Gazte lokalaren** aldeko mugimenduak eguakitzero,

19:00etan, Kartzela zaharrean egiten den bileran parte hartzeko dei egiten die gazteei.

KINTADAK

► **1978an** jaio eta Mariaren Lagundian euskarazko taldean elkarrekin ibilitakoen afaria urriaren 28an. Izen-ematea Arrano tabernan. Afari egunean, 20:00etan Pol-Pol tabernan elkartuko dira.

► **1955ean** jaiotakoen afaria Azpeitxi jatetxean urriaren 28an. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Azpeitxi jatetxean bertan.

► **1940an** jaiotakoen afaria Antxonin urriaren 28an. Izen-emata martitzenera arte zabalik 646 66 58 54 zenbakian.

► **1953an** jaiotakoen afaria azaroaren 4an Txuringon. Osintxura joateko urbanoa aterako da Frontoitik, 21:00etan. Afalostean dantzaldia izango da. Itzulera, 2:30ean egingo da. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Txuringon bertan, Kiñun eta Eroski ondoko ONCEko postuan.

► **1972an** jaiotakoen bazkaria azaroaren 11n. Izen-ematea Etxagi tabernan azaroaren 3ra arte.

► **1950ean** jaiotakoen afaria azaroaren 18an Txuringon. Izen-ematea (7.500 pezeta) Kutxan azaroaren 11ra arte zabalik.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Evasion en la granja

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

El ultimo escalon

Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.

Santitos

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

El portero

Eguakitza: 22:00.

American psycho

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

American psycho

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

U-571

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

La tormenta perfecta

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Orfeo

Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA. Baztartxo

Space cowboys

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

La ducha

Eguena, zine-kluba: 20:00.

EVASION EN LA GRANJA

Zuzendariak: Peter Lord eta Nick Park. **ADIN GUZTIAK** Efektu berezi aipagarriak eta umorea ardatz dituen filmea. *Ginger, Bunty* eta *Babs* izeneko oiloak euren askatasuna lortzeko ahaleginetan ari dira aspalditik. *Gingerrek* ihesaldirako plan arriskutsuak antolatzen ditu baina baserritarrek behin eta berriz harrapatzen dituzte... Azkenean, *Rocky* oilarraren laguntzaz, ihes egiteko aukera paregabea izango dute...

EL ULTIMO ESCALON

Zuzendaria: David Koepf. **Aktoreak:** Kevin Bacon, Kathryn Erbe, Illeana Douglas. ▲ 13 URTE *Tom Witzky* (Kevin Bacon), lagun batzuren etxean, hipnotizatu egingo dute eta hortik aurrera esplikatu ezin dituen gauzak ikusten hasiko da, amets aztoratzaileak eta hilketak bateko irudiak tartean. Berea ez den bizitza bizitzen hasiko da *Tom*.

SANTITOS

Zuzendaria: Alejandro Springall. **Aktoreak:** Dolores Heredia, Demian Bichir, Alberto Estrella. ▲ 18 URTE Latinamerikako filme onenaren saria jaso zuen filme honek joan zen urteko Sundanceko Jaialdian. Emakumeen indarrari buruzko istorioa da. Bere alaba bakarria hil ondoren, *Esperanzari* (Dolores Heredia) santu bat agertuko zaio, galdutakoa berreskuratze bidea markatuko diona.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Argitapen honen edizioko laguntzaile:

 **kutxa**

*gizarte-ekintza
obra social*

Mari Karmen Gallastegi Bergaran izan zen joan zen martitzenean. Hitzaldia ematera hurbildu zen San Joxeperen kultura hamabostaldiaren barruan. Globalizazioa izan zen hitzaldiaren ardatza, eta horren inguruan jardun genuen berarekin.

G. Zer da globalizazioa?

E. Denbora errealean edozein operazio ekonomiko egiteko aukera emango dizun testuingurua izatea; gainera, planeta osoa kontuan hartzen duen unitate batean. Hau da, transakzio finantzarioak, mugimendu fisikoak, erosteko, saltzeko... aukera izatea unitate planetarioan, eta, gainera, denbora errealean. Hori da globalizazio hitzarekin ulertzen duguna.

Internazionalizazioa ezberdina da. Internazionalizazioa herrialde guztien zabaldua da, baina euren arteko dependentziarekin. Globalizazioa transnazionala da, herrialdeen arteko dependentzia sortu baino, herrialde asko hartzen ditu kontuan, eta horien jardueira erregulatu.

G. Zergatik hitz egiten da azken boladan horrenbeste globalizazioaz?

E. Fenomeno ekonomiko guztiakin gertatzen den bezala, globalizazioak abantaila asko ditu, baina baita desabantailak ere. Horregatik, aurkako mugimenduak sortu dira, eta, nire ustez, izateko arrazoia ere badute. Izan ere, globalizazioak ezberdintasunak areagotu egiten ditu, bai herrialde barruan baita planeta mailan ere. Gainera, horren aurka ari direnak, beste puntu batean ere oinarritzen dira: batzuek, globalizazioa geldiezin dela dio-

MARI KARMEN GALLASTEGI
EHUko Ekonomia katedraduna

“Globalizazioak identitatea galtzea dakar eta kultura homogeneizatzea”



Mari Karmen Gallastegik martitzenean eman zuen hitzaldia Bergaran.

ten arren, ez da egia; globalizazioa geldiarazteko neurriak har daitezke.

Hirugarren munduaren pobreziarekin arduratuta daudelako sortu diren mugimenduek ongi dakite estatu indartsuek nahi balute, ezberdintasun horiek zuzendu litzaketela. Eta globalizazioa moteltzeko neurriak har litzaketela ere bai.

“Euskal Herrian ez dugu hausnartu globalizazioak izango duen eragin politiko eta sozialari buruz. Eta egin beharrekoa da”

G. Zein dira alderdi on eta txarrak?

E. Produktibitateak, aberastasunak, kontsumitzaileen ongizateak... gora egingo dute, bizitzaren ikuspuntua aldatu egiten da, komunikazioa ere azkartu egiten da...

Txarrei dagokienez, identitatea galdu egiten da, kultura askoz ere homogeneoagoa da, eta oso ados egon behar duzu identitate konpartituen ideiarekin.

G. Zein puntutan dago orain globalizazio prozesua?

E. XIX. mendearan amaieran globalizazio prozesu oso sendoa egon zen, industri iraultzarekin batera. Baina oraingoarekin alderatuta, izaera ezberdina izan zuen. Haren ostean bigarren gerrate mundiala heldu zen, estatuak babestu egin ziren, eta globalizazioa hasi, komunikabide azkarrekin batera hasi zen; kapitala izugarritzko abiaduran mugitzeko aukera egon zenean.

Oraindik asko geratzen da globalizazioa gorenera iristeko. Baina goazen bideetik munduak eztabairik ez egitea nahi badugu, globalizazioari bideak jarri beharoko dizkiogu.

G. Zer dio Euskal Herriak honetan guztian?

E. Prozesu honetan sartu behar dugula jakitun garelako uste dut. Badira hainbat adibide: eskoletan Internet irakasten da; etxean orde-nagailuak ditugu...

Hala ere, Euskal Herrian ez dugu hausnartu globalizazioak izango duen eragin politiko eta sozialari buruz. Arlo ekonomikoan, enpresak nola jardun behar duen badakigu, baina zer da soberaniaren nozioa? Eta lurraldetasunarena? Eta estatuarena? Horren inguruan ez dugu oraindik nahikoa jardun.

Saihesbideko Amillagako irteera itxi egin dute ia sei hilabetez

Eibar-Gasteiz autobideko sarrera hor kokatuko da, eta lanok egiteko itxi da

Martitzenean itxi zuten saihesbideko Amillagako irteera, Ondartza baserriaren parean. Bertan, errotonda eraikiko dute, eta, ondorioz, irteerako zubiaren ahoa handitu.

Saihesbideko Amillagako irteera itxi dute; Hondartza baserri parekoa, hain zuzen ere. Arrazoa, Eibar-Gasteiz autobidearen obrak dira; izan ere, hortxe bertan egongo da autobiderako sarrera, eta sarrera horretako lanek eragin dute itxiera.

Saihesbidearen irteeran bertan biribila eraikitzen hasi dira. Horrek, saihesbideko ibilgailuak erregulatuko ditu, eta baita autobideko sarrera hartzen dutenak ere.

Martitzen arratsaldean itxi, eta biribila eraikitzeko, saihesbidean desbio txiki bat egin dute. Bestalde, oraingo irteera estua denez, handitu egingo da. Lanok bost edo sei hilabete iraungo dute, eta saihesbideko



Biribila, Ondartza baserriaren parean eraikiko dute. Behin-behineko desbioa, biribilaren albotik pasatzen da.

irteera itxita egongo da bitartean.

HAINBAT OHAR

Itxieraren ondorioz, Eibar aldetik datozen ibilgailuek saihesbideko lehenengo irteera hartu beharko dute herrigunera sartzeko. Arrasate aldera saihesbidetik jo-

ateko, ez dago inongo arazorik.

Elgetatik datozenek, atzera egin, eta saihesbideko lehenengo irteera hartzea komeni da Arrasate aldera joateko. Izan ere, herrigunera jotzen badute, trafiko arazoak sortuko dira herri barruan.

Martitzenean hasitako lanak, autobideak Bergararen hegoaldeko Maltzagarraino izango duen tarteari dagozkio; tarte horretako Afasari. Eraikitzen ari diren Lezari eta Gallastegiko tunelak eta Ubera ibaia zeharkatzen duen bidezubia ere tarte horretan sartzen dira.

Hilabeteko kartzela ezarri diote Asier Bardeziri

Hilabeteko kartzela zigorra eta Frantziako urtebetekoz sartzeko debekua izan da Baionako Auzitegiak Asier Bardeziri ezarri diona. Marie Therese Villa epaileak, Miarrizteko goi bileragatik egindako manifestazioen ostean harriz armatuta egotea eta talde organizatuan parte hartzea egotzi dio.


Epaketa joan zen martitzen arratsaldean izan zen.

Fiskalak urtebeteko kartzela zigorra eta Frantziako lurretan hiru urtez sartzeko debekua eskatu zuen. Hala ere, CRS (Frantziako polizia) eta Bardeziren deklarazioen artean kontraesanak zeudela eta, arestian aipatutako zigorra jarri du. Bardezik ezeztatu egin zituen egotzi zizkioten karguak.

Gogoratu, Bergarako gaztea joan den eguakitze-

an atxilotu zutela Miarrizten. Handik, Baionako komisaldegira eraman zuten, eta zapatu arratsaldean deklaratu zuen. Ostean, Baionako espetxera eraman zuten martitzenean epaitua izan arte.

Oraindik ere han dago eta hilabeteko zigorra duen arren, Frantziako legediaren arabera, hiru aste emango ditu espetxean.



Asier Bardezi.

Udalak, Emakumeen Mundu Martxarekin bat

Joan zen astelehenean egindako ezohiko plenoan, Euskal Herriko hainbat erakunde feminista eta emakume taldek aurkeztutako mozioa onartu zen. Mozioak, Emakumeen Mundu Martxa 2000 du ardatz. Bertan adierazten denez, pobrezia eta indarkeria sexistak euskal zein mundu osoko emakumeengan duen eragina gero eta handiagoa da, baita ondorioak ere. Hala ere, gizar-teak bizi duen egoera hori ez da aldatzen ari; emakumeek egunero baieztatzen dute hori, eraso bai fisiko, bai psikologikoak jasan behar izaten baitituzte, batzuetan hil arterainokoak. Gainera, txirotasuna goraka doala dio mozioak, eta erantzule zehatzak dituela. Txirotasun horrek independentzia mugatzen duela ere adierazten du, emakumeek euren erabakiak eta auke-



Mundu Martxa martitzenean amaitu zen Bruselan.

HEESOOON YIM

rak askatasunez hartzea baldintzatuz.

Errealitate hori Euskal Herrian ez ezik mundu osoan ere ematen da, eta, horrekin bukatzeko, ezinbestekoa da sexu banaketa hierarkikoan oinarrituriko sistema sozioekonomikoa eta politikoa aldatzeko benetako borondatea. Errealitate horri aurre egiteko, instituzioetan neurri eraginkorrak

bultzatu beharra gehitzen du mozioak, emakumeen bizi baldintzak hobetzeko.

Honekin, Udaltzatik zera adostu zuen: batetik, Emakumeen Mundu Martxa 2000ri atxikimendua adieraztea; bestetik, txirotasunaren eta bortizkeria sexistaren kontrako borrokan benetako neurriak hartzeko eta egindakoa ebaluatzeko konpromisoa hartzea.

Kontzentrazioa San Martin plazan

Martitzenean, berrogeita hamar lagun inguru kontzentratu ziren San Martin plazan ETA-ren azken atentatua salatzeko asmoz. Gogoratu, taldeko bi kideak, Sevillako Antonio Muñoz Molina koronela hil zutela tiroz astelehenean. Kontzentrazioa 12:00etan egin zen.

Martitzenean istripu larria Ibargarain

Martitzen arratsaldean, Mercedes Benz etxeko kamioi batek M.I.T.B., 31 urteko emakume urretxuarra, harrapatu zuen Ibargarai Iribidean, barianteko bidegurutzean. Larriki zauritua dago, eta Ertzaintzak testigu posibleen kolaborazioa eskatu du 943 76 53 40 telefonon.

Nahiz eta ez uste izan, jende ugari Elosuko ferian

Jende ugari bildu zen joan zen egunean Elosuko ferian. Uste gehientsuenen aurka, primerako eguraldia egin zuen, eta antolatzaileek, Elurtxiki Elkarteko kideek, esandakoaren arabera, aurreko urteetan baino jende gutxiago joan arren, 1400 auto zenbatu zituzten aparkalekuan. Horiei, errepide bazterretan zeudenak gehituz gero, "4.500 lagun inguru" bertaratu zirela baieztatu dute.

Feriarri dagokionez, aurreko urteetan baino abeltzuri eta makinaria gutxiago egon da. Izan ere, aurreko



Mila lagun baino gehiagok bazkaldu zuen Elosun.

egunetako eguraldia ikusita, partaide batek baino gehiagok atzera egin zuen.

Arratsaldean ere jende

ugari izan zen herri kirolak ikusten. Antolatzaileak pozik azaldu dira orokorrean jasotako erantzunarekin.

Feriako sarituak

Talderik onena

Antonio Olaizola (Azpeiti)

Blonda Pako Badiola (Elosu)

Pirenaika Balentin Gabilondo (Elosu)

Asturiana Garikoitz Badiola (Elosu)

Limousina Txomin Oruesagasti (Elosu)

Gaskoigne J. M. Lizarralde (Elosu)

Zezena Antonio Olaizola (Azpeiti)

Txahalik onena

Iñaxio Zunzunegi (Zumarr.)

Idi pareta Jose Arruti (Zizurkil)

Suiza Lopene anaiak (Zestoa)

Mestizoa J. M. Lizarralde (Elosu)

Zaldia Asensio Sodupe (Azkoiti)

Astoa Eugenio Osa (Elosu)

Ardiak Iñaxio Ibarzabal (Azpeiti)

Aharia Pedro Lizarazu (Zumarraga)

Udalak itxi egin du Kultura Etxeko bideo zerbitzua

Kultura batzordearen proposamenari jarraituz, Udalak itxi egin du Kultura Etxean orain hamar urte martxan jarritako bideo zerbitzua. Kultura batzordearen arabera, martxan izan den urteetan, zerbitzuak herritarrei bideoaren erabilera hurbiltzeko balio izan du, eta baita beste leku batzuetan egindako lanak ezagutzera emateko aukera eskaini ere.

Hala eta guztiz ere, zerbitzu hori ongi emateko, ekipamendua berritzea komeni da; izan ere, hamar urte hauetan erabiltzaile asko izan ditu, horietako mordoak ez aditua, gainera.



Bideo zerbitzua orain dela 10 urte jarri zuen martxan Udalak.

Bestalde, zerbitzuaren erabilera ez ditu justifikatzen eskatzen dituen inbertsioak, eta, horrez gain, kultura arloan beste lehentasun batzuk daude batzordearen

esanetan. Gainera, zerbitzua sortu zenean, bideoa gutxi batzuen tresna bazen ere, gaur egun kontsumo produktu bihurtu dela ere azaldu dute udal iturriek.

Herriaren azterketa topografikoa egingo du Udalak

Udalaren aginduz, Agrocarto, S. A. enpresa, herriko lurren azterketa topografikoa egiten ari da. Hogeita lau milioi pezetako aurrekontua du lanak, eta enpresak sei hilabeteko epea du amaitzeko.

Udalaren helburua, herrigune guztiaren kartografia (auzoak azterketatik kanpo geratuko dira) dokumentu bakar batean jasotzea da. Izan ere, orain arte, tokian tokikoak baino ez dira egin. Herri osoko kotak jasota izateak erraztu egingo du hurrengo batean kota hauek bilatzea.

MERKATARITZAKO JARDUNALDIAK



Dendaren dekorazio eta girotzea

Hizlaria: **Begoña Herrero**

2000ko urriaren 24an eta 25ean, martitzena eta eguaztena, 14:15ean Bergarako Kultur Etxean

Laguntzailea:



INDUSTRIA, KOMERTZIO ETA TURISMO SALA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Antolatzailea:



Berrigara

426 zenbakia.
2000ko urriaren 20a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak: Estepan Plazaola.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereibar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usa Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate,
Juan Martin Ellexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara (Aukeran-ek
lagatako argazkian oinarrituta)

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
irizien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Begarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurilaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

TRAFIKO ARAZOAK

Artekale kalea itxita aspalditik, aste honetan bertan Amillagako barianteko irteera ere itxi dute ez dakit noiz arte, aparkatzeko lekuri ez, Antzuolarako bidean, San Antonion, kotxe ilada luzeak egunero lanera joateko orduan... Kotxean ibiltzen garenontzat egoera gero eta okerragoa da Bergaran eta kotxea hartu baino lehen bi aldiz pentsatu beharra dago.

Aurreko batean BERRIGARAK kaleko inkestan planteatzen zuen ea jendeak kotxea behar baino gehiagotan erabiltzen ote duen. Hori ere egia dela uste dut. Edozein enkargu egiteko edo herriko beste edozein

tokitara joateko autoa hartzera ohitu gara gehienok, gauzak eroso egite aldera.


Orain dela gutxi hainbat hiriburutan kotxerik gabeko eguna egin (eta ospatu) zen eta ideia ona iruditu zitzaidan, baldin eta urtean zehar horri jarraipena ematen badiogu. Herri txikia da gurea eta erdialdean bizi garenok autoa askoz ere gutxiago erabili beharko genuke. Askotan uste dugu autoa hartuta denbora irabaziko dugula baina, azken hilabeteotan izandako aldaketekin, momentuan guttiz kontrako gertatzen dela esango nuke. Zenbat denbora galtzen dugu kotxean sartuta, han edo hemengo obrak direla eta sortzen diren kotxe

iladen erruz? Obrak hasten direnean beti kexak entzuten dira baina geure partetik esfortzu txiki bat egingo bagenu, behar bada gauzak hobeto joango lirateke.

Bestalde, aparkalekuen falta nabaria da. Kotxean kopuruak badirudi gora egin duela eta, aldiz, kotxe guzti horiek hartzeko azpiegiturarik ez dago. Gero, multak etortzen dira kotxea behar den moduan ez apartkatzeagatik. Udalak beste konponbide batzuk aurkitu beharko lituzke horren aurrean. Guztion artean trafiko arazoak hobetzea lortu dezakegu.

Jose Perez

tira biraka usoa mendikute



atrebentzia ezpada

bai, esan!

Erosketak nun egitteko ohituria daukazu? Supermerkatu haundixetan, denda txikixetan...



Mertxe Basauri

Segun ze produktu. Frutia eta berduria, esaterako, fruterixan erosten dot, baiña erosketa haundixena supermerkatuan egitten dot.



Nekane Montori

Normalian amak egitten dau, supermerkatu haundixetan. Baiña frutia, adibidez, merkatuan erosteko ohituria dauka.



Igor Quintana

Janarixa eta etxerako gauzak hiperrian erosten dittut; erropia erostera, berriz, Bilbora juateko ohituria daukat.



Marisol Sanchez

Zentro haundixetan egitten dittut erosketak, bertan daukatelako dana. Lanian gabitzenondako oso erosua da.



Maria Pilar Araiz

Normalian, komertzio haundixetan. Frutia eta haragixa, berriz, denda txikixetan.



Joxeba Jauregi

Gauza gehixenak denda haundixetan erosten dittugu. Baiña frutia, haragixa, arraina eta horrelakuak denda txikixetan.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

KORRIKA EGITEKO LEKU APROPOSAK

Iñaki Unamunoren deia jaso dugu aste honean. Iñaki Unamuno urtean zehar Osintxu edo Labegaraieta aldera irteten da korrika egitera eta berak esaten duenez, udaberrian eta udan bai, baina iluntzen hasten denerako han entrenatzerik ez dago, baldintzak penagarriak dire eta. Ez dago inolako argiztapenik Osintxurako bidean, eta, inguruan ibiltzen den korrikalari kopurua kontutan hartuz, Udalak zertxobait egin beharko lukeela dio. Beste horrenbeste gertatzen da Labegaraietako Industrialderaino joanez gero. Aspal-diko aldarrikapena dela dio Iñakik eta, behingoz, Udalak horri soluzio bat ematea eskatu nahi du, antza denez, azken urteotan ez baita ezer egin.

Arantza Erlojutegia

Barrenkalea 4
943 76 10 04

AGOITZ Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47

ZUBIAURRE aroztegia

- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako atak.
- Neurriera egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztietako arotz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73

ezpeleta Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Ganbara TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75



Tartufo Jatekoa

Eguneko menuak.

Asteburuetan, menu berezia **1.500** pezetan!

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tf. 943 76 35 51.

Gallastegi

Jostundegia

Lanerako mahoizko jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

San Joxepeko eskulturaren inaugurazioa

Joan zen martitzenean **Lorentxo Askasibar elgetarrak** egindako eskultura inauguratu zen **San Joxepe elkarteko atarian**. **Maximo Goikoetxea** Gizartekintzako diputatuak eta **Koldo Pereira** zinegotziak deskubritu zuten monolitoa. Eskulturak bi metro baino gehiago ditu, eta "Erretiratuetatik partaide izatera" lemaren gainean, bikote gazte bat ageri da, agure bati zutitu dadin eskua luzatuta. **Xabier Azkoitia** Santa Marinako parrokoak eskultura bedeinkatu zuen, eta **Markos Labaienek** pare bat bertso bota zituen inaugurazio ekitaldian. **Lorentxo Askasibarrek** ere egindako lanaren azalpena eman zien bertara bildutakoei.




Zorionak Piku!

Paulo Elkororen lagunak ondoko argazkia atera zuten, domekan, hilaren 22an, Paulok 27 urte betetzen baititu. Lagunak Irizar jau-regi ondoko parkean bildu ziren eta pankarta handi batez zoriondu nahi izan zuten "Piku", laister guztiak elkarrekin egoteko itxaropenaz.

Carmen eta "Poti"

Iñigo Gallastegi "Poti" eta **Carmen Guzman** salbadortarra joan zen urriaren 10ean ezkondu ziren **San Franciscoko Udaletxean**. "Poti" orain dela urte eta erdi joan zen Estatu Batuetara eta, orduetik, San Franciscon bertan egin du lan. Han Carmen ezagutu zuen, eta, esan bezala, epaile baten aurrean ezkondu ziren joan zen astean. Ikusten duzuen bezala, bakero estiloa aukeratu zuen "Poti" bere ezkontzarako. Abendu aldera ezkondu berriak Bergaran izango ditugu. Bien bitartean, lagunak zorionak eman nahi izan dizkiete. Beraz, zorionak eta laister arte!



Jaolatzak 25 urte

Uberako Jaolatzak elkartek bere sorreraren **zilarrezko ezteiak** ospatu zituen **urriaren 7an**. Auzoko 33 lagunek sortu zuten elkarte **1975eko San Martin egunean**. Sortzaileen artean **emakumeak izan zituen lehen elkarte** izan zen Jaolatzak. Gaur egun dituen **53 bazkideetatik 7 emakumeak** dira. Esan bezala, joan zen urriaren 7an giro bikainean egindako afariarekin ospatu zuten elkartearen 25. urteurrena. Afarian 30 lagun inguru izan ziren, eta trikitalaririk ez zen falta izan.

Bergaran ez die asko basarritik bizi dienak. Horietako bat da Aitor Aristegi. Aitorrek 33 urte dauzka, eta Maite bere arrebiak eta bixak Lamaiño-Etxeberri basarrixan dauzken behi, ardi eta abarretatik etaraten dabe bizimodua.

Baserrixan lan egitten dozu.

Baserrixan lana besterik ez ei dago...

Egixa da, bai. Lanari neurrixa hartzen jakin bihar da.

Aldatzekotan, zertan lan egingo ziñuke?

Ez neuke aldatuko, ez jat eta gustatzen iñork agintzerik.

Zeuk agintzia gustatzen jatzu?

Ezin jat, baiña, iñori agindu; txakurrari edo ez bada.

Animalixa bat?

Txakurra.

Esnia, osua ala desnatatua?

Osua, eta basarrikua, gainera.

Zer da basarrixak daukan onena?

Lasaitasuna eta norberan erara ibiltzeko libertadia.

Eta txarrena?

Sakrifizio asko egin bihar dala, lan gehixegi eta opor gutxiegi dagoela.

Zein jarriko ziñuke basarrixan lanian?

Jarriko neuzke batzuk, bai, politikoren batzuk.

Zela definituko ziñuke zeure burua?

Irekixa naiz, langillia eta nahikua konformistia.

Manixa bat?

Ez dot uste manixarik daukatenik.

Dirua, osasuna ala maitasuna?

Osasuna da inportantiena, baiña hobe diru pixkatekin lagunduta bada.

Aitor Aristegi

Gautxorixa zara ala eguna nahixago?

Asteburuan, behintzat, gautxorixa naiz.

Bazkari ideal bat?

Paellia, zapua eta tarta bat.

Eta bazkari horretarako edari bat?

Txakoliña.

Zapatuan sufritu ziñuan Realarekin?

Ez; gainera, Athleticzalia naiz.

Kirolzalia zara?

Bai, baiña ez daukat praktikatzeko denborarik.

Ze kirol dozu gustokoen?

Kirol danak gustatzen jat, baiña, txirrindularitza eta futbola batez be.

Txirrindulari gustokuena?

Otxoa anaiak.

Lau t'erdiko txapelketia zein irabazia nahiko ziñuke?

Retegik, bere azken denboraldixa izango da eta.

Egunkarixan zer da lehenengo irakurtzen dozuna?

Portadia, eta handik giatzen naiz interesatzen jatena topatzeko.

Telebistako saio bat?

Animalixei buruzko dokumentalak asko gustatzen jat.

Aurkezlerik gogokuena?

Euzkitze.



EDEL

TAPIZDENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artakalea 8 Tf. 943 76 31 02



KORTA-ZAR Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoen espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

POL-POL Taberna

943 76 07 78



Euriarekin, badatoz perretxikoak

Zaleen ustez aurtengoa ez da perretxiko urtea izan

Euskal Herrian perretxikoetarako afizio handia dago. Asko dira goizean goiz jaiki, eta, bastoia eta otzara lagun dutela, inguruko basoetara perretxiko bila joaten direnak. Aurten ez ei da perretxiko urtea, baina egun hauetan egin duen eguraldiarekin, oraintxe ariko ei dira hazten perretxikoak. Bergaran ere afizio handia dago, eta inguruetan gero eta pinu gehiago eta perretxikoetarako baso gutxiago dagoen arren, afizioa egon badago.

Apirilean hasten dira urteko lehen perretxikoak erretzen, eta, udazkena bitartean, era guztietakoak topatu ahal ditugu gure basoetan. Perretxiko mota bakoitzak badu bere sasoia. Honetaz guztiaz hitz egin nahi izan dugu Mariasun Gardoki eta Alejandro Alberdi senar-emazteekin. Txiki-txikitatik izan dute perretxikoetarako afizioa, gaur egun gero eta gutxiago ibiltzen diren arren. Pedro Andrinua ere perretxikozale amorratua dugu, eta kanpora ere asko joaten da.

aldera, Araba eta Nafarroara, eta baita Burgos ingurura ere, baina bere esanetan, "ez da jakiten non topatuko duzun perretxiko gehien; pasatu zaigu Burgoseraino joan eta ale barik bueltatzea".

OHITURAK ALDATUZ DOAZ

Alejandrok gogoratzen duenez, "lehen gibelurdinak, korosua, saltsia eta hongua bakarrik jaten zen, ez zen besterik batzen". Gaur egun, berriz, gero eta perretxiko mota gehiago jaten da. Pinutalak, esaterako, katalanek bakarrik jaten ei zituzten.

Basoetan izandako aldaketek ere izan dute eraginik ohitura hauetan. Izan ere, gero eta harizti gutxiago eta pinudi gehiago dago Bergara inguruan. Horregatik, nahiz eta garai batean ez zen pinutelarik edota pinudiko hongorik jaten, gaur egun jende asko joaten da pinudietara perretxikotara. Hala ere, Mariasun eta Alejandrok betiko ohiturei eusten diete, eta beti ezagutu izan dituzten perretxikoak bakarrik jaten dituzte.

Pedrok, hala ere, honakoa esan digu: "pentsa gaur egun zela apreziatzen den hongoa; bada, ni gaztea nintzenean barra-barra egoten ziren, baina pozoi-tsua zirela pentsatzen genuen, eta inork ez zituen jaten".

EGURALDIAREN GARRANTZIA

Alejandrok garbi dauka zer eguraldi den perretxikoendako egokiena: "lanbrua eta mendebala dagonian egoten da perretxiko gehixen; hego haizia, berriz,

PERRETXIKOTARA, NORA?

Mariasun eta Alejandro hemen inguruan ibiltzen dira: Pol-Pol aldean, Galarramendin eta Ubera aldean. Baina Araba aldera eta Arantzazu inguruko basoetara ere joan izan dira. Pedro Andrinua, oster, hemen inguruko basoetan ere ibiltzen den arren, asko joaten da kanpora Sagastume bere lagunarekin: Orduña



Duela sei bat urte Andrinuak eta Sagastumek Nafarroan batutako hongoak.

PEDRO ANDRINUA

MARIASUN GARDOKI



P. ANDRINUA

perretxikoendako dagoen okerrena da, sikatu egitten dittu-eta". Mariasun Gardokiren iritziz, basoan amaraunak ikusten direnean, goroldio-inguruan, zuhaitzetan, seinale txarra da, perretxiko guxti dagoen seinale, hain zuzen ere.

Pedro Andrinua ere ados azaldu da eguraldiaren garrantzia aitortzerakoan, baina zera gaineratu du: "dena dela, sekula ez dakizu zer topatuko duzun; urte batean perretxiko mordoa topatu duzun tokian eta garaian hurrengo urtean ez duzu ezer topatzen, nahiz eta eguraldi nahikoa ona egin. Perretxikoen kontuan zorteak ere garrantzi handia izaten du".

SUSA-LEKUAK

Udaberriarekin batera, martxoan edo apirilean, hasten dira susak agertzen, perretxikorik preziatuenak euskaldun askorentzat. Beharbada askorik egoten ez delako eta topatzen zailak direlako.

Perretxikozale gehienek badute euren susa-lekua. Izan ere, susak beti toki berean ateratzen dira, urtero-urtero. Hortaz galdetuaz bat, "hori sagraua da" diosku Mariasunek. Lehen susa asko

batzen omen zuten, Elosu aldean, batze ere. Orain, berriz, gero eta gutxiago omen dago lehen esandako arrazoia dela-eta: pinudiek hartu diete lekua lehengo basoei, hariztiei, pagadieiei... Mariasunentzat susa garaia oso polita izan ohi da: "neri asko gustatzen jat sasoi hori; susa-lekuekin dagoen misterio hori polita izaten da. Norbait zeure susa-leku aldera juten ikusten baduzu, atzetik segi, eta ezkututik begira egoten zara, kokalekua zaintzeko asmoz".

Alejandrok ere garrantzi handia ematen dio honi: "susa-lekuaren berri ez jako inori eman bihar; ahal bada, ezta andriari be". Bere emazteak aipatzen zuenarekin jarraituz, honako hau esaten digu: "askotan, papeladia be egin izan dogu inguruan norbait somatu ezker: txokoren batian susak batzen gabitzen itxuria egin, beste perretxikoziak engaiñatzeko".


PERRETXIKOEN ARRISKUA

Perretxikoak ondo ezagutu eta bereiztea oso garrantzitsua da. Badakigu perretxiko pozoitsu asko hazten dela. Baina, gainera, perretxiko preziatuenek antzeko perretxiko pozoitsuak dituzte, eta erraza izaten da nahastea.

Hala ere, asko dabilenari ez ei zaio horrelakorik gertatzen Alejandoren arabera: "antza izaten dabe bai, baiña guk segittuan antz emoten jau zein dan ona eta zein txarra. Pardilliakin horrelako kasu asko ezagutu dogu". Beraz, badakizue, animatu eta joan zaitezte perretxikotara, baina asko ibilitakoak ez bazarete, batutakoak jan baino lehen, kontsultatu adituren batekin.<

A zelako lanpernak!

Erreportaje hau prestatzen ari ginela, hara non deitu digun Aitor Larreategik, perretxikotara joan eta lanperna mordoa batu dituela esanez. Gainera, ez dira, ez, lanperna makalak; galantak dira, argazkian ikus daitekeen moduan. Semearekin batera batu ditu Aitorrek lanpernak. Hamar bat kilo etxeratu dituzte, eta, horrenbestekin, bada, familiakoen artean banatu behar.




adituen esanetan

Enplastuak

Enplastuak hainbat gaitz osatzeko lagungarri gisa erabiltzen dira. Buztinarekin egindakoak dira ohikoena, eta kolpeak, katarroak, eztarriko mina, kalentura, ekzemak eta horrelakoak sendatzeko erabiltzen dira. Kolpe baten kasuan, esaterako, infusio bat egiten da kalendula, aizeri buztana eta arnikarekin, eta, hozten laga ondoren, buztinarekin nahasten da.

Erabiltzen dugun buztina beti ere garbia izan behar da. Buztinak trinkotasuna hartzen duen neurrian, trapu baten gainean bota eta zuzenean larruazalaren gainean jarriko dugu. Kasu honetan enplastu hotza jartzea komeni da, ordubetez. Larruazala siku geratzen bazaigu, olio edo krema hidratanteren bat erabil liteke. Esan bezala, enplastu hotzak nahiz beroak jarri daitezke. Hotzak kalentura dugunean, erre-durak, buruko mina, barizeak edo ekzemen kasuan erabiltzen dira, eta beroak cistitis, elakristena (divieso), txildorra edo besikulari dagozkion kasuetan. Buruko mina sendatzeko, adibidez, buztina eta limoiarekin egindako enplastua egin dezakegu eta kokotean jarri. Asko erabiltzen den beste enplastu bat berbena-enplastua da. Zartaginean olio pixkat berotu ondoren, berbena txikituta bota eta arrautzaren zuringoarekin tortila moduko bat egiten da. Gasa baten gainean jarri eta horrela




ALBERTO ALTUBE

Dietista

“Enplastuak hainbat gaitz osatzen laguntzeko erabiltzen dira: kolpeak, katarroak, eztarriko mina, kalentura, ekzemak eta abar”

aplikatzen da: sinusitisa, eztula edo erlakiztena (zornez betetako granuak) sendatzeko oso egokia da. Lunbaldia arazoetarako aza orri bat estufa gainean berotu eta gerrian jar dezakegu (beroa egon dadin, toaila batekin batuta-edo).

Katarro eta eztarriko minendako beste metodo bat dago: kipula bat egosten jarri eta biguntzen hasten denean, kipula geruza bakoitza eztiarekin igurtzi eta hiruzpalau geruza eztarrian jarri, bufanda batekin batuz. Bestalde, erreduren kasuan, larrosa gorriarekin infusioa egiten da, eta infusioa jogurtarekin edo esnearekin nahastu. Oso garrantzitsua da enplastu bat behin erabiliz gero, berriro ez erabiltzea, bestela atzera ere gaitza harrapa liteke eta.



Buztinarekin egindako enplastuak dira ohikoena. ARTXIBOA

bergarako errota



BELASTEGI-BOLU

Lope Martinez Isastik bere garaiko Bergarako oinetxeen artean Beiztegioko aipatzen du. Ziurrenik Oinetxe horretatik sortuko zen gerora Beiztegi-boluko errota.

Nire galdera: badaukate zer ikusirik Belastegik eta Beiztegi? Nire ustez, ez.

1919an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean errota jabea Gregorio Lizarazu dela adierazten da eta “errota ez dabilela oso ondo joan deneko 50-60 urtean”.

Belastegi-Bolura joan ginenean, esan ziguten bazirela gutxienez ehun urte errota izateari utzi ziola, nahiz eta Maria Aristimuñok (1924an jaiotakoa) adierazi zigun berak entzuna zuela noizbait errota izana zela.

Berastegi-errekako urak erabiltzen zituen eta bere ezkerreko aldean zegoen. Eraikinean antzeman daiteke, nahiz eta tapatuta dagoen, garai batean “errotepea” izan zena.

KOKAPENA. Osintxu auzoan, Mekolalde tabernaren edo Narbaitza lantegiaren aurrean abiatzen den errepidean gorantz hartuta, ehun bat metrora.

1919an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean errota jabea Gregorio Lizarazu dela adierazten da eta “errota ez dabilela oso ondo joan deneko 50-60 urtean”

Antxon Agirre Sorondo

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias eta Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 66. zenbakia. 2000ko urriaren 20a.

Elkartasun eguna ANELKAR Gobernuz Kanpoko erakundeari esker

Urriaren 28an egingo da Hirugarren Munduari laguntzeko jai eguna

Urriaren 28an, zapatuan, herriko pilotalekuan, Hirugarren Munduarekiko elkartasun festa ospatuko da, Antzuolako Elkartasun Taldeak -ANELKAR- antolatuta. Badira urte batzuk ANELKAR elkartasun festak antolatzen ari dela, baina aurten festa hau herriko jaietatik kanpo antolatuko dute.

Elkartasun festa tortila lehiaketaren ondoren hasiko da, arratsaldeko 18:00etan, meriendatxo batekin. Meriendarako ANELKAREk gonbita egin du jendeak nahi duena eraman dezan: kafea, txokolatea, pastak, etab... Honekin herritarrek parte hartzera eta inplikatzera animatu nahi ditu.

Txokolatadarekin batera, kanpo zorraren inguruan mahai bat jarriko da; bertan, sinadurak jaso eta informazioa lortzeko modua egongo da. Bidezko merkataritzako saltokiak ere egongo dira. ANELKAREkoen hitzetan "bidezko merkataritza dirua eman beharrean lana emateko modu bat da, honen bidez Hirugarren Mundukoek enpresak sortzen laguntzen ahalegintzen gara, ez dadila karitatea izan. Soilik dirua ematean dudak agertzen dira eta, geure buruari galdetzen diogu: iritsiko ote da nik ematen dudana dirua Hirugarren Munduraino? Bidezko merkataritzarekin produktua erosten duzu, azukarra edo kafea, bitartekaritza gutxiago dago, eta dudak hauek argitu egiten dira. Bidezko merkataritzaren denda nagusia Arrasaten dago, Hiper Eroskin, hain zuzen ere".

Arratsaldeko 18:30ean, musikarekin alaituko du elkartasun festa *Duo*



Bidezko merkataritza izango da nagusi herriko pilotalekuan.

Plaentxik. Talde honek Hego Amerikako musika jotzen du, rantxerak batez ere.

Elkartasun festa baino lehenago, urriaren 25ean, hitzaldia egingo da kanpo zorrari buruz. Hizlaria Beñat Arzadun izango da, Arrasateko Harreman Gobernu Kanpoko Erakundeko kidea.

ELKARTASUN BEREZIA

ANELKAREN esanetan azken urte hauetan Hirugarren Munduaren inguruan zen-

tratu dira batez ere elkartasun festak. Herrian badago harreman berezi bat Brasilekin eta bertan dagoen Juan Antonio misiolari antzuolarrarekin. Brasiletik Antzuolako herria eskertu nahi izan dute behin baino gehiagotan, jaso den diru laguntza guztiagatik. ANELKAREkoek diotenez, beraien helburu nagusiak "kalte-tuek dauzkaten arazo larriei laguntza ematea eta sentsibilizazio lanak egitea da". ■

Dirua eman beharrean lana emateko modu bat da bidezko merkataritza

Futboleko gazteek ere hasi dute liga

Azkenengo Kontuolan talde nagusia eta nesken taldea aurkeztu eta gero, oraingoan gaztetxoenen txanda da.

Gazte mailan, Bergarako David Lopez de Abetxuko da entrenatzailea. Taldekiak aldiz: Ibai Zabala, Ion Ander Castro, Xiker Iparragirre, Egoitz Mendia, Aritz Alonso, Jose Rodriguez, Aritz Saidi,

Sergio Outeriño, Gorka Iglesias, Eneko Zabaleta, Gotzon Zabalo, Ion Gurutz Godoy, Javier Peñalba, Erik Lizarralde, Aitor Blanco, Iosu Segurola, Ieltxu Mendizabal, Mikel Bargiela, Iosu Zubikarai eta Ion Iturbe.

Kadete mailan, Jose Angel Fernandez eta Gurutz Madariaga dira entrena-

tzaileak eta jokalariek: Daniel Garcia, Aritz Elorza, Hodei Aranguren, Ekaitz Olalde, Iñaki Arbulu, Kepa Igarza, Aitor Godoy, Mikel Idiakez, Luis Franco, Josu Asensio, Endika Iturbe, Txomin Alberdi, Auritz Guridi, Ibon Urzelai, Unai Madariaga, Xabin Muruamendiaraz eta Ohian Gezalaga.



AKEko gazteen futbol taldea.



AKEko gaztetxoenek, bi entrenatzaile dituzte.

UDA OSTEKO LEHEN OSOKO BILKURA



Urriaren 5ean, eguenean, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko batzar aretoan uda osteko lehen osoko bilkura egin zen. Besteak beste, udalbatzar honetan 1999ko udal errolda, bideen lanak, errekaen desbideratzea, udaletxearen sarrera eta aretoa pintatzea, eta beste hainbat gai izan zituzten eztabaidagai.

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA BERGARA
609 157 131 609 150 164

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51



Urriaren 3an aurkeztu ziren "Zaharkinak" en fitxak.

"Zaharkinak" proiektua amaitu dute Aranzadikoeak

Urriaren 3an, Aranzadi elkarteko Fermin Leizaola eta Josu Tellabide etnologoek Zaharkinak proiektuaren klasifikazioa eta fitxategia aurkeztu zituzten udaletxean. Fitxak aurkezteko ekitaldian, diapositiba bidez herriko baserrietan jasotako piezak erakutsi zituzten.

Fitxak oso osatuak dira: udalerria, gauzaren izena, gaia, non eginga dagoen, bere neurriak, erabilera, egoera (zein egoeratan jaso zuten), jabea eta baserriaren izena jasotzen dute, besteak beste. Zaharkinak erakusketa, maiatzaren 20an inauguratu zen eta 15 egunez herriko pilotalekuan ikusteko aukera izan genuen. Aranzadi elkartekoen hitzetan "hilabeteetan luzatu zen lana. Baserriarekin eta udaletxeko agintariekin egon ondoren, 11 neska asteburuetan baserri-baserri aritu ziren lanabes eta intereseko gauzen bila eta klasifikazioa egiten. Udaletxeko langileen laguntzaz

piezak jaso, garbitu, eta txukundu egin ziren. Denera, 1.500 pieza jaso zituzten, horien artean argazkiak, garbiketarako tresnak, lanerako piezak, kutxak, plantxak, erlijio kuttunak, zeramika tradizionaleko ontziak, argizaiolak, uztarriak, abarkak egiteko plantilak... Pieza hauek errespetatu egin behar dira, baita ahal bada mantendu, kontserbatu eta zabaldu ere".

Erakusketa 2.235 lagunek ikusi zuten eta iritzia jasotzeko kuaderno bat jarri zen. Baina euren ustez "lan hau ezin daiteke erakusketa batean bukatu, hurrengo gizaldiek, lana ikusi eta ikertu nahi badute, fitxa hauek egin behar dira. Transmisio era egokia dela deritzogu". Gainera bilketa, klasifikazioa, erakusketa eta fitxak orain egin behar da, hemendik 50 urtera ezinezkoa izango delako". Fitxategia interesa duzen denontzat udaletxeko artxiboan gordeta duzue.

TORTILA LEHIAKETA

Urriaren 28an, zapatuan, arratsaldeko 16:30ean Herriko plazan, tortila lehiaketa egingo da. Taldeak gutxienez 4 laguneokoa izango dira, eta bi taldetan banatuko dira mailak: A taldean 5. eta 6. mailakoak, eta B taldean, DBH 1 eta 2koak. Lehiaketaren baldintzak hauek dira: talde bakoitzak tortila bat bakarrik egingo du. Dena bertan egin beharko da, 16:30ean hasita. Tresnak eta osagaiak talde bakoitzak ekarriko ditu, eta talde bakoitzari 2.000 pezeta emango zaio gastuetarako.

ARTISAUTZA ERAKUSKETA

Bergarakoa izan arren, bada denboratxo bat Jose Ramon Aiausti Antzuolan bizi dela. Bera eta bere neskalaguna, Manuela, artisautzan aritzen dira eta datorren domekan, urriaren 22an, Ordiziako artisautza feriara doaz, euren lore-sikuak erakustera. Lorez gain, altzariak, egurra landu eta umeendako jolasak ere egiten dituzte. Domeka honetan Ordiziara badoaz ere, ez dira hor geldituko eta hurrengo, Gernikako astelehenerako feria nagusira joango dira eta baita Truziozera ere; izan ere, guztira zortzi herritatik deitu diete. Euren asmoa artisautzatik bizitzea da eta proba egin ondoren, ondo baldin badoakie jarraitzeko asmoa daukate. Zorte on!



**MUEBLES
IGEA**

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Udaletxean fresko bat pintatuko da

Lehiaketa bidez aukeratuko da nork margotuko duen udaletxeko horma

Antzuolako udaletxea zaharberritzeko azken lan garrantzitsuak 80ko hamarkadaren hasieran egin ziren. Ia bi hamarkada iragan dira eta sarrera hormak eta sabaia, eskailera eta kupula, berritzeko premia dagoela antzeman daiteke.

Lan hauek osatzearren, Antzuolako Udalak erdiguneko eskaileraren horma nagusian lan artistiko bat egiteko lehiaketa deitu du. Lan artistiko hauekin gaur egungo estiloa eman nahi diote udal ordezkariak udaletxeari toki jakin horretan.

OINARRIAK


Obra piktorikoak, gutxienez aurreko hormako erdialdeko erronboa hartu behar du. Lan hau, "fresko" teknika erabiltzea egin behar da, hau da, horman bertan egin behar da eta obraren motibak Antzuolako herriarekin lotuta egon behar du.

Parte-hartzaileek egin beharreko proiektua aurkeztu behar dute udaletxean, eta edozein prozedura eta tamaina onartzen da. Gainera, lanari buruzko azalpen txostena ere gaineratu ahal daiteke eta egindako obraren adibideak azaldu behar dira argazki edo diapositiba bidez. Lanak egilearen azalpenik gabe eta lelo baten pean aurkeztu behar dira. Lanari gaineratuko zaion gutunazal itxi batean lehiatzailearen datu pertsonalak jakinaraziko dira eta NAREN fotokopia sartu behar da. Gutunazalaren kanpoaldean aurkeztutako lanaren leloa baino ez da adieraziko.

Proiektuak 2000ko abenduaren 11ko eguerdiko 12:00ak baino lehen aurkeztu behar dira, udaletxean. Proiektuak Antzuolako Udalen osoko



Udaletxe barruko horman (beheko irudian) egingo da margolana.



500.000 pezetako saria izango da eta horretaz gain behar dena, udalak jarriko du

bilkura aretoan jarriko dira jendaurrean 2000ko abenduaren 29tik hilabete bereko 31a arte.

Epaimahaiak erabakia 2001eko urtarilaren 12an jakinaraziko du.

SARIA

Saria 500.000 pezetakoa izango da. Dena dela, bidezko irizten dituen akzesitak ezarri ahal izango ditu, beti ere inolako sari ekonomikorik gabe. ■

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teillatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

Arih

JATETXEA
Euskal sukaldaritza
Eguneko menua
Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

LEKU-BERRI MERENDEROA
Janariak eta edariak
Tf. 943 76 60 94

B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaiari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA.** Bidekurtzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76
- **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETXE, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA: SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurtzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE**
- Eduarne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76


Osasunez bizi izateko!

Jon Lazkanok eta Alberto Iñurategik Malin grabatuko dute "Mano de Fatima" deritzan parajea eskalatuko dute

Eguaztenean Malirantz irteteko zen Jon Lazkano mendizale bergarra. Berak errepidez egingo du Euskal Herri-tik Afrikarainoko bidaia, 4.000 kilometrotik gora, ekipo guztia eramanez. Azaro erdialdera "Mano de Fatima" izeneko lekuan eskalada egingo dute Iñurategik eta Lazkanok.

Espedizioko beste lagunak heldu bitartean, Mauritania talde bat gidatuko du eta azaro erdialdean bere espediziokideekin elkartzeko da Lazkano. Alberto Iñurategi, Asier Aranguren ETBko kazetaria eta Gotzon Arribas kamara izango dira Lazkanorekin Malin, Mauritania eta Argelia hegoaldean, Sahara basamortuaren bukaeran.

Azaroaren 20tik aurrera "Mano de Fatima" deritzan parajearen egingo duten eskalada grabatzeko asmoa dute. Jon Lazkano duela bost urte bertan egondakoa da, eta ondo ezagutzen du lekua; "esku bateko behatzen forma duten haitzezko dorreak dira, 300-700 metro bitartekoak. Eskalada klasikoa egingo dugu; ez goaz helburu alpinistikoarekin. Helburua irudi politak hartzea da, eta, eskaladako irudiekin batera, hango kulturen berri ematea. Mali herrialde musulmana da, baina "Mano de Fatima"tik 300 bat kilometro hegoaldera Dogon herrialdea dago, naturarekin harremana duen



Jon Lazkano, martitzenean ateratako argazkian.

erlijioa praktikatzen duena; hori ere islatu nahi dugu".

SAIO SORTA

Hasiera batean, Patagonia, Nepal, Pakistan, Yosemite, Mali eta Zelanda Berrian horrelako saioak grabatzeko asmoa zeukan ETBk, baina Felix Iñurategiren heriotzarekin planak aldatu egin behar izan dira. Yosemiteko grabaketa, esaterako, atzeratu egin da, oraingoz. Dagoeneko grabatutako materialarekin lanean dihardute eta baliteke urtarri alderra emisioei ekitea

ETBk. Andoni Egaña bertso-laria izango da dokumental hauen gidoigilea.

Felix anaiaren heriotzaren ondoren, hauxe izango

"Malira ez goaz helburu alpinistikoarekin. Irudi politak grabatu eta beste kulturen berri eman nahi dugu"

da Alberto Iñurategiren lehenbiziko irteera; "Alberto ondo ikusten dut, mendira joateko gogoarekin, azken batean bere bizimodua izan delako beti. Azkenaldian, astero, hiruzpalau aldiz entrenatzen izan gara biok hemen inguruan: Araotzen, Atxarten edo Mugarran. Malikoa proba moduko bat izango da, ea Felix barik zela moldatzen garen ikusteko. Ez dugu hurrengo irteerarako datarik jarri nahi momentuz" dio Jonek. Felixen heriotza gertutik jarraitzea tokatu zitzaion; "hemengo jendearekin osatutako trekking bat gidatzen ari nintzen, eta beraiekin kanpo basean egon ginen. Trekkinga bueltatzeko bezperan Albertok deitu zidan gertatutakoaren berri emateko, eta guztiontzat kolpe handia izan zen, nahiz eta hasieran guztiz konsziente ez zaren. Hortik aurrera hainbat gestio egin behar izan nituen, eta nahikoa zorte izan genuen, eguraldiak batiere lagundu ez arren. Helikopteroarekin arazoak izan genituen".

KIROLTASUN SARIA

Bestalde, astelehenean Gipuzkoako Diputazioak kiroltasun saria eman zion TVEko "Al filo de lo imposible" saioko taldeari. Joan zen urteko uztailean Nanga Pargat mendian kolonbiar mendizale bat erreskatatze-agatik eskuratu zuten saria Alberto Iñurategik, Juanjo San Sebastianek eta Jon Lazkanok taldearen izenean.

Bergarak Alaves C taldearen aurka jokatu du bihar Agorrosinen

Bergarako futbol talde nagusiak Alaves C taldearen bisita izango du, bihar, zapatua, 16:30ean Agorrosinen. Azken jardunaldian Ondarroan galdu ondoren, mahoneroak sailkapeneko seigarren tokian dira, 13 punturekin. Alaveseko hirugarren taldea, aldiz, hamalagarren tokian dago, 9 punturekin.

Bergara orain arte sendo ari da etxeko partiduetan. Lemoa, Bermeo eta Real Union taldeei irabazi die, eta San Pedroren aurka huna berdindu zuten Juanina Garairen jokalariek.

Joan zen eguenean, Real Union Bren aurka Agorrosinen jokatu du partiduan,



Juanina Garai mahoneroen entrenatzailea bere jokalariek zuzentzen.

Bergarak partidu ona egin eta hiru puntuak eskuratu zituen. Etxekoak 3-2ko emaitzarekin nagusitu zitzaizkien irundarrei.

Biharko partiduari begi-

ra, Asier Rodriguez atzelaria baja izan daiteke. Juanina Garairen hitzetan, "Alavesek talde gaztea izango du, eta irabazteko moduko partidua izan daiteke biharkoa".

Bergara-Lasalle senior mailako saskibaloia partidua Kiroldegian

Begarako senior mutilen saskibaloia taldeak Donostiako Lasalleren aurka jokatu du zapatuan, 16:00etan, Kiroldegian. Alex Familiarren mutilek ez dute oraindik garaipenik lortu jokatu du hiru partiduetan. Azken jardunaldian, Donostian, 76-71eko emaitzarekin galdu zuten Intxaurren aurka. Bihar, zapatua, lehen garaipena eskuratzeko aukera izango dute.



Argazkian, joan zen denboraldiko partidu bateko irudia.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Alaves C

Hirugarren maila
Zapatua. 16:30. Agorrosin

Bergara-Arrasate

Bigarren mailako kadeteak
Zapatua. 18:15. Ipintza

Bergara-Anaitasuna

Infantilak
Domeka. 10:00. Ipintza

Bergara-Zestoa

Lehen mailako jubenilak
Domeka. 11:30. Ipintza

SASKIBALOIA

Bergara-Lasalle

Senior mutilak
Zapatua. 16:00. Kiroldegian

Bergara-Askatuak

Kadete mutilak
Domeka. 12:15.
Mariaren Lagundia

GIMNASIA ERRITMIKOA

Gipuzkoako taldekako txapelketa domekan, hilak 22, 11:00etan Kiroldegian

PILOTA

Bergara-Intxaurren

(jubenil banaka)

Bergara-Beloki

(2. mailako jubenilak)

Klubn arteko txapelketa

Gaur, eguakitzan, 20:00etan Angiozarko Arbiaska pilotalekuan

Baque txapelketa

Martitzenean, hilak 24, 19:30ean Udal Pilotalekuan, partidu hauek:

- Jauregi (Soraluze)/Lopez (Deba)
- Azagirre (Soraluze)/Biteri (Antzuola)
- Herran (Bergara)/Elizburu (Soraluze)

ARREGI

Eraikuntza materialak

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tf. 943 76 27 93

PILI GISASOLA

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83

iRUDI

Erlojudenda
Bitxitegia

Ibargarai 2
943 6 51 65

ileapaindegia

eder gela

— disdira —

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Torrekua-Bildurbarek	5-7
Eri-Bar Canalejas	4-7
Amoskibar-Pagomendi	2-9
Fac-Errotagain	1-4
Buya-Bar Ugarte	2-8
Apa Oxemai-Irubide jatetxea	9-3

B MULTZOA

Pinturas Bergara-Manitou	3-0
Agirrebeña-Vacalouras	4-21
Etengabe-Amilotx	1-6
Aterpe-Bayer	8-1
Tom Cat Argandolas-Kanpazar	3-2
Ortiz-Suntsitzailleak	14-0

C MULTZOA

Molko lotov-Ezinleike	1-3
Mongatxurak-Latex	12-2
Txipiron-Komando Piperrak	1-2
Artusamak-Patxaran Team	4-4
A Ze Flaxa-Shaktale	3-4

ZAPATUAN BARRUAN

9:30: Amilotx-Aterpe	Bar Ugarte
10:30: Bar Ugarte-Apa Oxemai	Vacalouras
11:30: Vacalouras-Pinturas Bergara	Suntsitzail.
12:30: Suntsitzailleak-Agirrebeña	P. Bergara
17:30: Bildurbarek-Amoskibar	Etengabe
18:30: Kanpazar-Etengabe	Buya
19:30: Pagomendi-Buya	Kanpazar

ZAPATUAN KANPOAN

16:30: Shaktale-Artusamak	Bildurbarek
DOMEKAN KANPOAN	
9:30: Guadalest-Txipiron	Latex
10:30: Latex-Molko lotov	Patxaran T.
11:30: Patxaran Team-Mongatxurak	K.Piperrak
12:30: K.Piperrak-A Ze Flaxa	Mongatxur.

DOMEKAN BARRUAN

16:00: Manitou-Tom Cat	Irubide
17:00: Irubide-Fac	Canalejas
18:00: Bar Canalejas-Torrekua	Errotagain
19:00: Errotagain-Eri	Bayer
20:00: Bayer-Ortiz	Eri

ARGI!

Manitou taldea zigortu dute

B taldean, Manitou taldeari, hiru puntu kendu dizkio Antolaketak Pinturas Bergararen aurka partidura ez aurkezteagatik. Partidu hori 3-0eko emaitzarekin galdutzat eman zaio gainera.

Fitxak aurkezteko epea

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, taldeen fitxak aurkezteko epea datorren urriaren 28ko astebukaeran bukatuko da. Hortik aurrera ez da jokalaria gehiagoren fitxarik onartuko.

Epaile lanetan ibiltzen direnak


Lehen jardunaldian epaileek txartel ugari erakutsi zuten, baina azken bietan txartel gutxi ikusi dira. Epaileak zorrotzago aritu beharko dira...

Amilotx, Shaktale, Errotagain

Amilotxek jokaturako hiru partidua irabazi ditu; Shaktalek A Ze Flaxari irabazi zion eta Errotagainek bere lehen garaipena eskuratu zuen.



GORA eta BEHERA



SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	9	3
2. Bildurbarek Opel Lam	7	3
3. Pagomendi	6	3
4. Bar Canalejas	6	2
5. Errotagain	4	3
6. Apa Oxemai	4	3
7. Buya	4	3
8. Eri	3	3
9. Amoskibar	3	3
10. Fac	3	2
11. Torrekua	0	3
12. Irubide jatetxea	0	3

B multzoa

	P	J
1. Aterpe	9	3
2. Amilotx	9	3
3. Ortiz	7	3
4. Tom Cat Argandolas	7	3
5. Pinturas Bergara	6	3
6. Vacalouras	3	3
7. Kanpazar	3	3
8. Manitou	1	3
9. Etengabe	1	2
10. Agirrebeña jatetxea	0	3
11. Suntsitzailleak	0	3
12. Bayer	-3	3

C multzoa


	P	J
1. Mongatxurak	9	3
2. Artusamak	7	3
3. A Ze Flaxa	6	3
4. Guadalest	3	1
5. Txipiron	3	2
6. Shaktale	3	2
7. Ezinleike	3	3
8. Komando Piperrak	3	1
9. Patxaran Team	1	3
10. Latex	0	3
11. Molko lotov	0	2

Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 ZUBILLAGA z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza
2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

mahoneroak



LUIS HERZOG
BKEko delegatua

Joan zen asteko zubia aprobetxatuz, bi partidu jokatu behar izan genituen, bata etxean Real Union B taldearen aurka eta domekan Ondarroan, Aurreraren aurka. Eguenean nik uste dut merezimendu osoz irabazi geniola Real Unioni, taldeak partidu ona jokatu baitzuen. Hasieratik nagusitu ginen zelaian eta talde osoak egin zuen lana gorai-patuko nuke. Ikusleek ere partiduekin gozatzeko aukera izan zuten, bost gol izan ziren eta. Etxeko partiduei eustea erabat garrantzitsua da guretzat.

Domekan, Ondarroan, lehenbiziko zatian, batik bat, taldea ondo aritu zen, baina kontraerasoan, Aurrerak egin zuen lehen gola. Bigarren zatian, beste bi gol egin zizkiguten oso epe laburrean, eta hortik aurrera ezinezkoa izan zitzaigun ezer positiboa lortzea.

Bihar, Alavesen aurka jokatu dugu. Eurek kalitateko jokalaria gazteak ei dituzte. Orain arte Agorrosinen ondo ibili gara, eta ea garaipena lortzen dugun.


Otsein Saria

Real Union B taldearen aurka partiduan hauek nabarmendu ditugu:
Txonan Gallastegi..... 3 puntu
Jokin Mendiartz..... 2 puntu
Koldo Erostarbe..... 1 puntu
Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

Gipuzkoako gimnasia erritmiko txapelketa domekan Bergaran

Ariznoa gimnasia erritmiko taldeak antolatuta, domekan, urriak 22, Gipuzkoako taldekako txapelketa jokatu da 11etatik aurrera Labegarietako Kiroldegian. Bertan Eibarko Ipurua taldeko lau taldek eta Donostiako beste hiruk hartuko dute parte. Lehen maila (inoiz Espainiako txapelketa podiuma egin duten gimnastak izango dira bertan), jubenil, junior eta infantil mailak bereiztuko dira domekako txapelketan. Guztira, 35 gimnasta izango dira lehian, 15 Donostiako taldeak ordezkatzu eta gainerako 20ak Ipurua taldekoak.

Eibartarrekin Ane Miren Fernandez eta Jaione Igartua jubenilak eta Aintzane Narbaez eta Leire Lasa juniorrak arituko dira. Laurak



Ane Miren Fernandez baloiarekin ariketa egiten.

BENITO CANTERO

bergararrak ditugu, eta aurretik Ariznoa taldean ibilitakoak dira. Ariznoa taldeko arduradunek dei egiten die gimnasia zaletuei domekan kiroldegira joan daitezzen, ikuskizun ederra izango baita antolatzaileen araber.

Bestalde, azaroaren 5ean Euskadiko taldekako txapelketa ere jokatu da Bergaran. Oraindik ez da partaidetza zehaztu, baina Ariznoa taldekoek badihardute antolaketa lanetan gimnastarik onenak Bergaran izateko.

Behobia-Donostia lasterketa

Azaroaren 12an egingo den Behobia-Donostia lasterketarako izen-ematea Lazkano oinetako dendan egin daiteke azaroaren 4ra arte. Izen-emateak 2.500 pezeta balio du. Aurten partaideek denbora neurtzeko txip batekin korrituko dute.

Futbolari kadetei deia

Bergara Kirol Elkarteak kadete futbol taldea osatzeko jokalaririk behar ditu. Beraz, 1985ean eta 1986an jaio eta futboleko aritzeko interesa duten gaztetxoak eguaztenetan, 18:30ean, Ipinzara joan daitezke.

IKER MURUAMENDIARAZ/ Pilotaria

"Lau kanporaketa gainditzeak konfiantza eman dit"

Iker Muruamendi azken (22 urte) aurrera egin du 2. mailako 4 1/2ko txapelketan, zapatuan, Bergaran, Otxandorenari 22-21 irabazi ostean. Lau kanporaketa gainditu ditu Ikerrek, eta domekan Badiolaren aurka jokatu du.

G. Ustekabeko garaipena lortu zenuen zapatuan...

E. Egia esan, emaitza harrigarria izan zen, 20-6 eta 21-14 atzetik joan bainintzen markagailuan. Partidu hasieran ez nintzen batera ondo ibili. Partidua erdi galdutzat ikusi nuenean, arriskatzen hasi nintzen, eta gauzak ondo atera zitzaizkidan.

G. Txapelketa hasieran espero zenuen horren ondo ibiltzea?

E. Lehenengo aldiz parte hartzen nuenez, ez nuen gauza handirik espero eta gauzak uste baino hobeto joan zaizkit. Lau kanporaketa gainditzeak konfiantza eman dit datozen partiduei begira, eta esperientzia baliogarria izango zait datorren urterako. Eskailera sisteman jokatzeko denez, datorren urterako maila batzuk igotzea lortu dut.

G. Domekan, Badiolaren aurka.

E. Aurrerako gogorra izango da. Askok


ateratzen du, eta tantuak erraz bukatzen dituz, dejak egiteko-eta trebezia handia duelako. Gauzak zailak jartzen ahaleginduko naiz.

G. Lau eta erdian ondo baino hobeto moldatzen zarela erakutsi duzu beti.

E. Nahiko ondo ibili naiz orain arte lau eta erdiaren barruan, eta aurten txapelketa gertatzeko asti gehiegirik izan ez dudan arren, emaitza onak lortu ditut. Betidanik gustatu zaidan modalitatea da, nire ezaugarrietarako ondo datorrelako.

G. Zein balantze egiten duzu profesionalentzat debutatu zenuenetik?

E. Otsailean urtebete egingo dut profesionalentzat, eta, duda barik, salto igartzen da hasieran. Lehen urtea zaila izaten da beti, baina lau eta erdiko txapelketarekin eta bina partiduekin ea aurrera egiten dugun poliki-poliki.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Zubiaurre. 75 m². Prezio ona. 943 76 28 49 edo 627 642 055.

Soraluze. 943 76 50 69.

Duplexa Urteagan. Berriztua eta berogailuarekin. 43 76 73 07 (Belen).

Apartamentu txikia Barrenkalea 34an. Oso txukuna eta jantzia. 656 740 165.

Zabalotegi, ganbararekin eta barriztua. 50 m². 943 76 07 01.

Bolun, jantzia. Deitu 607 455 396 telefonora.

Pisua herri erdialdean. 646 305 349 / 636 794 761.

EROSI

Baserrira erosiko nuke Bergaran. 943 18 77 57.

Etxea erosiko nuke Bergaran. 943 76 38 25.

ERRENTAN EMATEKO

Etxeko logelak aloka-

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

tzen ditut. 943 76 43 95.

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alokairuan. 696 782 176 (Loli) edo 630 712 318 (Marta).

Pisua alokairuan hartuko nuke. 943 76 40 79 (Karmen)

Etxea alokatu nahi dut Bergaran edo inguruan. Deitu 943 76 30 84 telefonora.

Etxea alokatu nahi nuke. 943 76 90 83.

Apartamentu txiki baten bila nabil. 655 747 321.

Pisua alokairuan hartuko nuke. 678 212 657.

Etxea alokatuko nuke. Jantzia. 90.000 pta. arte ordaintzeko gertu nago. Presazkoa da. 649 790 901.

ETXE KONPARTITUAK

Gela edo pisu konpartitua alokairuan

hartu nahi nuke. 943 36 34 59 (Rakel).

Donostiako Amaran ikasleen pisua osatzeko neska behar da. 943 47 32 67.

Pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. 30.000 pta. 656 773 637 (Eli)/943 76 15 46 (Iñigo).

2. GARAJEAK

SALDU

Aranerreaka. 943 76 24 84.

Antzuolan, Ibarrodo kalean. Apalekin. 943 78 70 08.

ERRENTAN EMATEKO

Burdiñate. 943 76 02 34.

Boni Laskurain. Deitu 606 217 256 telefonora.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokal komertziala hartuko nuke alokairuan, 40-60 m²koa. 646 673 204.

3. LOKALAK

SALDU

Autobus geltokiaren ondoan bulegoa (58 m²). Deitu 607 344 658 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Lokala errentan Bolun (100 m²) eta Arruriagan (18 m²). Oso merke. 606 962 380.

4. LANA

ESKAITZAK


Emakumea, umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 943 76 56 92.

Lana egingo nuke 15:00etatik 17:00etara. 943 76 36 68 (13:00-14:00 eta 19:00-21:00).

Mutil atzeritarra lanerako gertu. 686 662 271.

Emakume edadetuak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. 943 76 06 92 (Amaia).

Garbiketak egiten lan egingo nuke. Deitu 943 76 53 18 telefonora.



Ur~bide
I T U R G I N T Z A

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617




AROMATERAPIARI BURUZKO HITZALDIA



- Zer da aromaterapia?
- Olio esentziak: zer dira, nondik datoz, nola lortu...
- Esentzien propietate terapeutikoak, erabilerak (bainuak, inhalazioak, masajeak, ukenduak, kremak...)
- Osasunean, estetikian, higieanean, psikologikoki eta emozionalki lortzen den oreka

Eguna: Urriaren 26a, eguena
Ordua: 19:00
Tokia: Kultura Etxea
Hizlaria: Itziar Salegi Urbietta



Bergarako Udala



Bergarako Udalak AGIRITEGIRAKO FUNTZIONARIO izaera izango duen administrari bat kontratatu behar du lehiaketa- oposizio bidez. Kontratazioa behin betikoa izango da.
LEHIAKIDEEN BALDINTZAK
- Goi Mailako Batxilergoa, Lanbide Heziketa II edo pareko titulua izatea.
- Euskaraz jakitea, 3. Hizkuntza eskakizunari dagokion maila, derrigorrezkoa.
- Adinez nagusia izatea eta funtzio publikoaren galetarako oinarriko legediak derrigorrezko jubilaziorako ezarritako adinera iristeko hamar urte baino gehiago falta izatea.

INSTANTZIAK
Instantziak aurkezteko epea 2000ko azaroaren 7an, 13:30ean bukatuko da. Oinarriak 2000ko irailaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira. Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan ere jaso daitezke.

Arratsaldeetan umeak zainduko nituzke.
943 76 13 46.

ESKAERAK

Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 19 27.

Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.
943 76 07 89.

Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. 943 76 28 05 / 33 27.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Marrakzi eta pintura klaseak ematen ditut.
943 76 40 14.

Ingeles klaseak ematen ditut. 943 76 31 72.

Ingeles klaseak ematen ditut. 649 577 059 (18:00etatik aurrera).

6. IBILGAILUAK

SALDU

Fiat Tipo 2.0 16V (SS-AN). 686 457 610 (18:00etatik aurrera).

Derbi Variant motoa. 943 76 49 88.

Opel Kadett 1.7 D (SS-AJ). 943 76 31 21.

Citroën Berlingo 2000 HDI. Otsailean erosia. Estrak. 610 384 896.

Scooter Skipper 125 motoa. Matrikulatua, ia berria. 943 76 61 05.

Seat Marbella. (SS-AF). 150.000 pta. 679 874 695.

Opel Corsa (SS-BB). 15.000 km. Deitu 943 79 27 30 telefonora.

Audi A4 berria. Deitu 943 76 02 08 telefonora.

VW Polo Diesel (SS-AX). 609 541 613.

Kawasaki Volcan 800 motoa. 900.000 pta. 943 77 08 69.

Opel Corsa (SS-AM). 943 76 52 31 (gauetz).

Opel Kadett 1.6S (VI-K). Berunik gabe. Egoera ona. 200.000 pta. 619 149 730.

Kawasaki ZZR 600 motoa. Egoera ona. 667 200 768.

7. ANIMALIAK

SALDU

Yorkshire Terrier txakurkumeak. 943 76 18 96.

Hiru hilabeteko artzain txakurrak. 943 76 52 21.

Hiru urteko pointerra. 943 76 40 03.

Boxer eta cocker txakurkumeak. Pedigridunak. 696 05 73 46.

8. DENETARIK

SALDU

Irristagailudun tronboia. la berria. 943 76 21 92.

Zanussi izozkailua, 7 kaxoiduna. la berria. Prezio ona. 943 76 12 01 edo 619 176 419.

Yamaha Hosseschreuders HC30R piano berria. 943 76 06 41 (gauetz).

Ordenagailuaren bozgorailuak. 677 648 230.

Bulegoko zurezko mahaia eta marrazteko mahaia eta aulkia. 607 344 658.

Jangelako altzari zaharrik: bi komoda tailatu

eta mahaia 6 aulkirekin. 639 779 592.

Egongelako altzaria. 2,8 m. 943 76 41 31.

Opel kotxeendako parrilla, 2 bizikleta eramatekoa. 943 76 03 75.

Adria karabana, 4 lagunendako. Oso egoera onean. Deitu 943 76 56 84 telefonora.

EROSI

Bigarren eskuko saxofoi altua erosiko nuke. 943 76 29 67.


Bigarren eskuko umeendako kotxea erosiko nuke (bikiertzat). 943 76 19 27.

GALDU

Urre koloreko perla urdindun lepoko bat galdu nuen urri hasieran, Martoko eta Zubiaurre artean. 943 76 17 21.

BESTELAKOAK

Botatzeko daukazun telebista hori gustora hartuko nuke edo merke erosiko. 943 77 91 25, lanorduetan (lon).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

MAKINAK PRESTATZEKO ELEKTRIZISTA INSTALATZAILEA
Debabarrena. 38931/1

INFORMATIKA IRAKASLEA
Arabako Lautada. 39468/2

PIOI MEKANIKOA
Bilbo. 39575/2

3D ANIMAZIO IKASTARORAKO IRAKASLEA
Bilbo. 3996447/1

KANPOKO MERKATARITZARAKO IRAKASLEA
Bilbo. 39649/1

KLIMATIZAZIO MANTENIMENDURAKO TEKNIKARIA
Bilbo. 39734/2

VISUAL C++ IRAKASLEA
Donostia. 39761/1

KOMERTZIALAK 2
Bilbo. 39744/3

MICROSOFT PROJECT IRAKASLEA
Donostia. 39763/2

LANBIDE HEZIKETA IIKO IRAKASLEA
Durangaldea. 39811/3

IGELTSEROA
Bilbo. 39859/1

KOMERTZIALA
Bilbo. 39889/2

BASOETAKO PIOIAK, 2
Enkartzazioetarako. 36902/3

PRODUKZIO ARDURADUNA
Miranda de Ebro. 37412/4

GAS INSTALATZAILE LAGUNTZAILEA
Goierri. 37806/7

ASTIALDIKO BEGIRALEAK, 3
Gasteiz. 37930/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakizetan 9:00etatik 13:00era.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

KLINIKA LAGUNTZAILEA

behar da Bergaran.
Bidali curriculumak:
Bengoetxea kalea 1,
2.a ezkerre
20004 Donostia

Norbait behar da BARRAN lan egiteko 943 76 20 46

MARRAZKI ETA PINTURA klaseak ematen ditut 943 76 40 14

Martxan dagoen TABERNA ALOKATZEKO moduan 943 76 23 66 656 772 291

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Etxebizitza berriak Antzuola erdian
• Aparteko lekuan eta ingururik ederrenera begira
• Primerako materialekin jasoak
• 18.000.000 pezetatik aurrera

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65


Aukeran, Edu Muruamendiarazen dantza konpainiaren emanaldia gaur, eguakitza

Udal pilotalekuan izango da 22:00etan eta sarrerak 300 pezeta balioko du

**Edu Muruamendiaraz dantzari bergararra herri-
ra hurbilduko da, gaur,
Aukeran bere dantza
konpainiarekin. Udal Pi-
lotalekuan, "Zirga-Eze-
an", taldearen azken ko-
reografia ikusteko auke-
ra eskainiko du taldeko
beste bost dantzarirekin
batera.**

Edu Muruamendiarazek 1997. urtean sortu zuen Aukeran dantza konpainia Euskal Koreografo Berrien I. Erakusketaren haritik. Izandako arrakasta eta esperientzia ikusirik, urte bat beranduago, 1998an, "Akilimarro" izeneko koreografia sortu eta aurkeztu zuen koreografo berrien II. erakusketan. 1999an, konpainiaren ibilbidea sendotzen joan zen eta "Errekan" izeneko hirugarren koreografia laburra estreinatu zuen dantzaren nazioarteko egunean.

Azkenik, 2000. urtean konpainiak hiru urte lehenago hartutako lan ildoari jarraituz, "Zirga-ezean" aurkezten dihardu Euskal Herrian zehar, eta gaur gauean Bergaran izango dugu.



Muruamendiaraz (ezkerraldean) eta taldeko beste bost kideak.

AUKERAN

AINTZINDARI BERRIKUNTZETAN

Dantza konpainiak urtez urte sortutako lanak batuz, denbora horretan landutako beste zenbait dantza uztartuz, eta

musikari bikainekin elkarlanean, "Zirga-ezean" emanaldi osoa aurkeztera ausartu da Muruamendiaraz herriko dantzaria.

Aipatzekoa da, bestalde, Aukeran taldea aintzindari izan dela berrikuntzetan, dantza tradizionalari balore berriak eskaintzen eta, aldi berean, bultzatzen, bai dantzen egitura aldetik, bai musika ezberdinak nahasterakoan eta baita jantziak berritzeko garaian ere.

IBILBIDE OPAROA

Dagoeneko, hiru urtetako ibilbidean, emanaldi ugari eskaini ditu Euskal Herrian zehar: Bera, Gasteiz, Donostia, Leioa, Donostia, Bilbo eta Hernanin esaterako. Baita antzoki garrantzitsu (Kursaal) eta telebista saioetan ere (Sorginen Laratza, Gala canal Vasco 2000).

Aipatutakoaz gain, beste musika talde eta bakarlari batzuekin lankidetzara bereziak ere egin izan ditu Muruamendiarazek bere dantza konpainiarekin batera: Kepa Junkera, Gozategi eta Ataitzekin, beste batzuren artean.

Muniategiandikoetxeak Gure Artea 2000 irabazi du

**Manu Muniategiandi-
koetxea** pintore bergar-
rarak, Gure Artea 2000 saria
jaso du "Palés" izeneko la-
narengatik. Eusko Jaurlari-
tzako Kultura Sailak antola-
tzen du sari hau, eta epai-
mahaiak, 213 artistaren la-
nen artean aukeratu du Mu-
niategiandikoetxearena.
Bergararrarekin batera, Ja-

vier Alkain eta Itziar Okariz donostiarrak ere saritu dituzte.

"Palés", egurrean eginitako akrilikoa da. Zuri-beltzeko lana da, bi sekuentzian banatua, eta hainbat palé adierazten ditu.


Gure Artea 2000 saria bi urtean behin antolatzen da. Helburua euskal artisten la-

na errekonozitzea da, eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo ere ezagutzera ematea.

Gure Artea 2000 sarian aukeratutako 25 lanak, Muniategiandikoetxearena barne, Donostiako Koldo Mitxelena kulturuneke erakusaretoan daude ikusgai azaroaren 22ra arte.



Manu Muniategiandikoetxea.



Gorlara bideko kurba honetan egingo da elurzuloa bisitatzeko aparkalekua.

ARTXIBOA

Neberetako elurzuloa konpontzeko 3,5 milioi pezeta

Kapirixo elkarteak Neberetako elurzuloa berreskuratzeko egindako proiektua diruz lagunduko dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalak. Diputazioak milioi eta erdi jarriko ditu; Udalak gainerakoa, joan den astean Kapirixoko kideekin egindako bileran adostutakoaren arabera.

Kapirixoren proiektuaren arabera, Gorlako bidean dagoen elurzuloa berreskuratzeaz gain, leku bisitatu izan dadin atondu egingo da ingurua:

aparkaleku txiki bat egingo da, bide zidor bat elurzuloraino heltzeko eta, errepide ondoan dagoela kontuan izanda, segurtasun hesi bat jarriko da bidearen luzera osoan.

Lanak noiz hasiko diren zehazteke dago oraindik; hala ere, Gabonak baino lehen izango da seguruenik; izan ere, maiatzerako amaituta egon behar dute lanek. Kapirixo elurzuloa berreskuratzeaz arduratuko da eta Udala obra zibilaz.

Goia-Arribek saxofoijolearen kontzertua

Musikari nafarrak "Eunate" azken diskoa aurkeztuko du bihar, zapatua, arratsaldeko 20:00etan Pleno aretoan. Josetxo Goia-Arribek kamara musika egiten du, eta azken lan honetan, bere saxoaren doinuak Pello Ramirezen

violoncelloaren doinuarekin bat egiten du.

Horrela, bi instrumentuen doinuak uztartu, eta euskal folkloreak melodia ezagunak eskainiko ditu bihar, zapatua.

erreseinak



Putz
5. zenbakia
Aldizkaria

Putz aldizkariaren bosgarren alea dugu hau. Ale honetan Sydneyko Olinpiadei eskaini die azala aldizkari-ko lan taldeak. Bestalde, dagoeneko ezaguna egiten zaigun luma zorrotz eta umore gazi-gozoz landutako gaiak jorratzen ditu: energia proiektu basatiak, zorologia, zinema e.a. Kolaborazio dotoreak ditu Putzek, eta ohiko bilakatu dira Asier Serrano, Paddy Rekalde edo Pernan Goñiren idatziak. Pablo Cabeza ere elkarrizketatu dute ale honetan.

- Putz. 46 orr. 450 pta.



Keu
Uek
Pop-rock

Disko instrumental honetan Nortonen (EH Sukarra eta Lorelei) teklatuak bat egiten du Keuren gitarra hotsarekin, eta bikote horri Paulilloren (Etsaiak) bateria gehitu zaio. Keu, Etsaiak taldeko gitarra jolea da, eta Uek bakarka atera duen lehenengo diskoa. Hala ere, ez du Etsaiak baztertu. Jazy-rock ikutuak ditu, eta baita musikari hauek ohituak gaituzten pop-rock doinuak ere. Zazpi kanta eta zazpi mundu antzeman daitezke digi-pack formatoan datorren cd honetan. "Zain" abestiak, esaterako, gitarren oihartzunaren bidez, Pink Floyd orotarazten digu, eta korralaren laguntzaz ahotsak dasta ditzakegun pieza bakarra da.

- Gaztelupeko Hotsak. 1.900 pta.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Irala 3
Telefona:
943 76 48 26



IRRINTZI
kafetegia

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA


Ezker eskuma 1. Aurrenekoa. 2. Miatu. Orpoaren erdian. 3. Nauka. Nerabezaroan dagoena. 4. Dauzka. Zailtasun handiz. 5. Agian. Zenbaki bikoitia. 6. Letoniako hiriburua. Lehen biak. Bokala. 7. Txori-mota. Interjekzioa. Sufrea. 8. Denbora. Francisco..., eskultore bizkaitarra (1867-1940). 9. Kontsonantea. Ezkontidea hil zaiona. 10. Azkenekoa. Amerikako erakunde xenofoboa.

Goitik behera 1. Landaredia. 2. Etxea, esaterako. Kontsonantea. 3. Aukeratuak izan daitezkeenak. 4. Nork atzikia. 5. Nortasun agiria. Oxigeno. Bibliako pertsonaia. 6. Moztu. Bokala. Oinarrizko edaria. 7. Alemaniako hiria. 8. Kontsonantea. Infin., akitu. Karta-jokoa. 9. Eroritako hosto-multzoa. ...egina, total egina. 10. Apaiza. Begiradak.

Soluzioa

10. Apeza. Soak.
8. G. Aki. Truk. 9. Orbela. Ink.
Eten. A. Ura. 7. Nuremberg.
Le. 5. NAN. O. Adan. 6.
3. Hautagaiak. 4. Ek. Usar.
1. Landaretza. 2. Eraikina. Z.
Goitik behera:
Aleguna. 10. Azkena. KKK.
S. 8. Tai. Durrio. 9. Z.
6. Riga. Ab. A. 7. Enara. Eti.
Nekez. 5. Akaso. Milla.
Rp. 3. Nau. Nerabe. 4. Ditu.
1. Lehengoa. 2. Arakatu.
Ezker eskun:

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar




Elkarrengandik gertu dauden etxe banatako leihoak dira hauek. Zeintzuk dira udaletxearen ondoan dauden etxeok?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Hauetako bat Jonathan Richmanen disko baten izenburua da. Zein?
A- Satisfaction
B- I'm so confused
C- Pretty woman
- Zenbat dantzari ditu Edu Muruamendiarazen taldeak?
A- Bost (bera barne)
B- Sei (bera barne)
C- Lau (bera barne)
- Nori irabazi zion Iker Muruamendiaraz pilotariak joan zen zapatuan?
A- Otxandorenari
B- Berasaluze VII.ari
C- Badiolari



Super BM emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Noelia Aldairentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Noeliari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Ubera** Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

La Cigala
arroza, kiloa
155 PTA!
Super BM en beti eskaintzarik onenak!

Asteko programazioa

EGUAKITZA 20

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Hamaika Magazin.
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Astebete. Asteko albiste nagusien errepaso.
 Aurkezlea: Marijo Deogracias.
22:00: Gatza eta Berakatza.
22:15: Soinuz Blai. Haika Aizpuruak aurkeztuta.

ZAPATUA 21

13:30: Asteko saioen errepika: Gatza eta Berakatza, Xeleberri, Aurrez Aurre, Hamaika Magazin, Soinuz Blai eta Astebete.

DOMEKA 22

13:30: Asteko saioen errepika: Gatza eta Berakatza, Xeleberri, Aurrez Aurre, Hamaika Magazin, Soinuz Blai eta Astebete.

ASTELEHENA 23

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Astebete.
20:00/20:30/21:00: Berriak.

Goitb

Goiena Telebista

Bergaran 47 kanalean

21:30: Goienasport.
22:00: Gatza eta Berakatza.

MARTITZENA 24

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Goienasport (errepika).
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Xeleberri. Unai Iparragirrek eta Iratxe Eguenek aurkeztutako albistegi berezia. Denboraldiko bigarren saioa izango da. Kazetari talde handi batekin Debagoienerako herrietan zehar aste-

ko albiste bitxien gaineko iritziak jasoko dituzte.
22:15: Gatza eta Berakatza.

EGUAZTENA 25

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Xeleberri (errep.).
20:00/20:30/ 21:00: Berriak.
21:30: Alkatearekin berbetan. Gatzaga herriaren txanda izango da oraingo honetan. Horretarako bertako alkatea den Joserra Agirreurreta gonbidatu dugu.

Parte hartzeko deitu
 943 71 23 93 telefonora.
22:15: Gatza eta Berakatza.

EGUENA 26

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Aurrez Aurre (errepika).
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Ekilan. Alberto Gorritibereak aurkeztu eta gidatutako saioa izango dugu aurten ere ikusgai GOITBn.
22:00: Soinuz Blai. Miren Gonzalezek aurkeztuta
22:15: Gatza eta Berakatza.



Alberto Gorritiberea.


ikustekoak!

On egin!

Gatza eta Berakatza Martitzena, 21:30

Aste honetan Bergarako Azpeitxi jatetxeko sukaldaria den Iñaxio Beldarrain gonbidatu du gu. Aranerreka kalean dago Az-

peitxi jatetxea eta beraien berezitasuna, besteak beste, haragia eta arraina parrillan dira. Ez ezazue galdu!




Astea sakonean

Astebete Eguakitza, 21:30

Indarberriturik dator Astebete denboraldi berri honetan. Aurkezlea, berria: Marijo Deogracias, Arrasate Presseko zuzendaria. Alboan bi iritzi emale: Eneko Azkarate, Goienkariako zuzendaria, eta Mikel Lezamiz soziologoa.

Saio bakoitzean gai bat izango da nagusi, asteak eman duen albisterik garrantzikoena. Horrez gain, laupabost albiste gainbegiratu dira. Bailarako herri aldizkariak ere izango dute txoko bat. Astero-astero, Eneko Azkaratek aldizkariak aurkezpena egingo du.

Eneko Azkarate.



Eta ikusleek aukera izango dute iradokizunak, galderak edo kexuak grabatzeko, propio jarriko den erantzule automatikoan.



Pol-Poleko mendizaleak, 1970

Goiko argazkia orain dela 30 urte aterakoa da. Ordurako Pol-Pol Mendizale Taldea martxan zegoen, eta jende asko biltzen zen taldearen inguruan. Gaur bezala, Pol-Polek mendi irteerak eta bestelako ekintzak antolatzen zituen, eta herritar ugarik hartzen zuen parte. Erretratua 1970. urteko Finalistaren egunekoa da. Elkarteak mendizale finenak saritzeko ohitura zeukan, eta hor ditugu mendizale gazteak Juan Mari Errasti Pol-Poleko orduko presidentarekin batera. Argazkia San Martzialen aterakoa da, 1970eko maiatzean. Honako hauek

dituzue bertan agertzen direnak:

Goian: Bernardino Maiztegi (atzealdean), Mariasun, Juan Mari Errasti, Jesus Mari Garitano, Arteaga, Arrate Areitio, Adela Ormazabal, Pako Luzarreta, Iñaki Arregi eta Jesus Muruamendiaraz "Minttei".

Makurtuta: Karmelo Iturrospe, Jose Ramon Sasigain, Tomasita Arbulu, Mila Portu eta ezezaguna.

Argazkia: BUA.

Roman Larrañaga fondoa

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



3.000.000 ibilgailu baino
gehiago aseguratuta
lasai-lasai errepidean



Problemarikgabe

Egin kontuak! 2.400 bulego, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa gune



MAPFRE

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



Txuringo Jatetxea



- ~Menua eta karta
- ~Ezkontzak
- ~Jaunartzeak
- ~Txerrikumea, bildotsa,
baserriko oilaskoa labean erreta...

OSINTXU. Tf. 943 76 48 63

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

Zure etxeko bainugela berri
eta altzariak jarri aurretik,
zatoz Jakinara.

Diseinua,
kalitate/prezio
erlazio bikaina
eta **saldu osteko**
zerbitzu ezin
hobea
eskaintzen
dizugu.



Jakina, zurekin pentsatzen



6 URTEKO GARANTIA



Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefonoa: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.